



ARGIA

5G

Dabid Martinez hacktibistaren analisia

Aurkako arrazoia

**DESZKUNDEA, JUSTIZIA SOZIALA,
KONEXIO-ARRAKALA ETA PRIBATUTASUNA**

22-26. orriak



***Migrazioaren
gordina lehen eskutik***

12 | CONSTANZA BARRIOS



***"Telelanak ondorio
larriak ditu
maila kolektiboan"***

28 | FANNY LEDERLIN



***Bunker naziak
Ipar Euskal Herrian***

34 | HISTORIA



Liburu-dendak
Kioskoak
Papertegiak
Kale-saltzaileak
Jostailu dendak
Denda ekologikoak
Nekazarien kooperatibak
Pentsu dendak
Loradendak
Belar dendak

...

Erosi herrian

Ez gaudela zure denda kuttunean?

Deitu diezagula dendariak eta ziztu bizian bidaliko ditugu:
679 81 73 54 / okorta@argia.eus

Zuzenean ARGIA n erosteko

www.argia.eus/azoka
943 37 15 45

Panorama

- 04 | ASTEKO ARGAZKIA
- 06 | AKTUALITATEA
- 08 | EKONOMIAREN TALAIAN
- 09 | HUMANITATEAREN
UNE GORENAK
- 09 | EZ HANKA EZ BURU

MUNTAIA:
DANI BLANCO

Iritziak

- 17 | ESTITXU GARAI
- 18 | ANE ABLANEDO
- 19 | RUBEN SÁNCHEZ
- 19 | ITZIAR BARDAJI
- 20 | KIMETZ ARANA

SAILLEN GOIBURUETAKO ILUSTRAZIOAK:
CLIPART COURTESY FCIT

Finkoak

- 40 | DENBORAREN MAKINA
- 41 | ARGIA KOMUNITATEA
- 42 | BIZI BARATZEA
- 48 | KULTUR-KRITIKAK
- 51 | DENBORA-PASAK
- 54 | ARGÍ-KONTRA:
NOEMÍ GARCÍA
- 58 | BERANDUEGI



28 | TELE-LANA

Jenofa Berhokoirigoinek Fanny Lederlin filosofoa elkarriketatu du, lan molde berrietan diren zapalkuntze, eta multinazional makro kapitalistek sustatzen duten kulturak eta bizimoduak lanaren eta aisiaren eremuan sortzen dizkiguten kontraesanez.

Elkarrizketak eta erreportajeak

10 | NET HURBIL

Planetaren arnasak zuhaitz eta oihanak behar ditu, batez ere Europa zaharrean

Pello Zubiria Kamino

12 | PERTSONAIA | CONSTANZA BARRIOS

“600 euro irabazi eta 50 gordetzen nituen neuretzat, gainerakoa Paragwaitira”

Miel A. Elustondo

22 | TEKNOLOGIA

5Garen kontra nago

Dabid Martinez

32 | NAZIOARTEA

Seke hizkuntzaren azken arnagunea Brooklynen

Ander Leon

34 | HISTORIA | KOSTALDEKO BUNKERRAK

Iragan deseroso baten arrastoak

Josu Narbarte Hernandez

37 | NAZIOARTEA | ERSIN ÇELIC - DIYAR HESSO

“Turkiarentzat krimena da pelikula hau existitze hutsa”

Aitor Aspuru

44 | KULTURA

Etiketak zauritu du fikziozko begirada

Kepa Matxain

Jabetza

Komunikazio Biziagoa
S.A.L. Ametzagaña Taldeko partaidea
Lehendakaria
Bego Zuza
Erredakzioa
Amaia Lekunberri, Axier Lopez,
Eneritz Arzallus, Estitxu Eizagirre,
Gorka Bereziartua, Jenofa Berhokoirigoin,
Jon Torner, Jone Markuleta,
Lander Arbelaiz, Mikel Garcia,
Onintza Irureta, Pello Zubiria,
Urko Apaolaza, Xabier Letona,
Zigor Oleaga
Diseinua
Maitane Gartzandia
Argazkilaria
Dani Blanco
Produktzioa eta inprimaketa
Antza S.A.L.
Administrazioa:
Jone Arzallus, Mari Karmen Loarte
Salmenta
Idoia Arregi, Karlos Olaso,
Olatz Korta
Idazkaritza
Aloña Soraluze, Bego Zuza
Web garapena
Asier Iturralde
Informatika
Iametz Interaktiboa, S.L.

Lege gordailua

SS 837-2012

ISSN

0213-909X

Batzorde parekidea

72562 E

GUREKIN HARREMANETAN JARTZEKO

Posta elektronikoa

komertzial@argia.eus
harpide@argia.eus

Telefonoa

943371545

Gipuzkoa

Industrialdea, 15. 20160 Lasarte-Oria
Lapurdi, Nafarroa Beherea eta Zuberoa
Xalbardin baita. 64122 Urruña
Nafarroa
Gazteluko Plaza 44, 3. eskuina
31001 Iruñea

Ametzagaiña taldeko kidea da ARGIA
honako enprekin batera:

antza
KOMUNIKAZIO GRAFIKOA

iametz
interaktiboa

ADUR software
productions

Doan eta libre

ARGIAko edukiak kopiatu, moldatu, zabaldu eta argitaratu ditzakezu, gure egilek aitortu eta baldintza beretan eginez gero. Are gehiago, gure edukiak ahalik eta gehien zabaltzea nahi dugu.



Lizentzia hau soilik ARGIAren edukientzat da baliagarria, baliteke beste testu eta argazki batzuek lizentzia hau ez izatea.



EKONOMIA SOZIAL ERALDATZAILEAREN
SAREKO KIDE GARA



ARGIA HIZKUNTZA POLITIKARAKO
SAILBURUORDETZAK DIRUZ LAGUNTZEN DU:

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA

Egin irri, irudietan zaude

Bizitza pribatua, jabetza pribatua, jabetza intelektuala... jabegoa eta eskubide indibidualak goستن dituzte sistema kapitalista guztiek. Baina hara non, espazio publikoa kameraz josita daukagun, ageriko zein ezkutuko. Herritarrek "zaintzeko" asmoz. Euskal Herrian, horretan ere, txapeldun. Aldiz, funtzionario publikoek, espazio publikoan, diru publikoz ordaindutako jardunak grabatzea zaildu edota zuzenean debekatu nahi dute nola edo hala. Madrilgo bulegoetan Mozal Legea asmatu zuten autozentsuraren mamua zabaltzeko eta orain Parisko palazioetan berdinetan dabilta. Beti segurtasunaren izenean. Norena, baina? Irudian: Emmanuel Macronen Segurtasun Globalaren Lege Proiektuaren aurkako egunotako manifestazioetako bat, Parisen.



MOTZEAN

Feminismoa eta Berdintasuna hiztegia eman dute argitara. Bi alor horietako euskarazko terminoak jasotzen ditu hiztegiak, dagozkien kontzeptu eta terminoekin. Euskalterm Terminologoa Banku Publikoan integratu da hiztegia.

Zubietako erraustegiaren kutsaduren kontrolerako bigarren ikerketa abian jarri dute. 2019an ekin zitzaion Gipuzkoako erraustegiak sortu ditzakeen kutsaduren kontrol independenteari. Bigarren ikerketa hau da erraustegia piztu zenetik lehenbizikoa.

Josetxo Arizkuren Iruñeko euskal preso politikoak bihotzekoa izan zuen azaroaren 29an eta ospitaleratu egin behar izan zuten. Arizkuren eta gaixotasun larriak dituzten beste 17 preso politikoak etxera ekartzeko eskatu du Sarek.

Disney Plus plataformako edukiak euskaratzeko kanpaina abiatu du guraso eta euskaltzale talde batek. Plataforma gaztelaniaz dago Hego Euskal Herrian. Katalunian herritarrek eta Generalitateak egindako gestioei esker, katalanez egotea lortu dute.

Salaketa eta aldarrikapena Euskararen Egunean

 ARGIA

Erabil dezagun abenduaren 3a, euskararen eguna, euskaltzale kontzientzia politikoa sortzeko, pairatzen ditugun botere harremanak begi bistan jartzeko, zapalkuntzak eta aurpegi garbiketak seinalatzeko, erasoak eta erasotzaileak salatuzko. Abenduaren 3aren atarian, mezu hori zabaldu zuen sare sozialetan Euskaldunok Planto mugimenduak.

“Gaztelaniaz eman zuen hitzaldi baten ostean, behin galdera bat egin nuen euskaraz, eta hizketan ari nintzela; no entendemos! oiherka hasi ziren publikoko beste pertsona batzuk eta oso gaizki pasa nuen”. Halako bizipenak eraso gisa identifikatu eta mahai gainean jartzea izan du asmo kolektiboak, “Euskararen eguna edukiz betetzeko”. “Euskaldunon zapalkuntzak dirauen bitartean, abenduaren 3a borroka eta salaketa eguna” izendatu nahi dute.

MIKRO ETA MAKRO ERASOAK IDENTIFIKATU

“Euskal Herri osoko euskaldunei dei egiten diegu euskaraz bizitzen saiatzean jasaten dituzten mikro eta makro erasoak identifikatzera”: gutxiespenak, mehatxuak, xantaia emozionalak, bazterkeria, diskriminazioak, babesgabatasun egoerak, umiliazioak, inposaketa, eta beste. Honatx adibide batzuk: “Euskaraz hobeto moldatzen naiz. Aurkezpen batean gaztelaniaz hitz egin nuen. Nire hizkerarekin, azentuarekin eta zailtasunekin txisteak egin zituzten”; “Nire amak ez daki euskaraz, haren gurasoek ez ziotelako hizkuntza transmititu, haiek jasan zuten sufrimenduagatik”; edo “Auzokideen whatsapp taldean euskaraz idatzi dut nire iritzia. Batzuek ez dutela euskaraz ulertzen eta gaztelaniaz denok dakigula esanez itzulpena egiteko exijitu didate”.



EUSKALDUNOK PLANTO

HUMANITATEAREN UNE GORENAK

Kontu moralak



ARITZ GALARRAGA

Gabriel Matzneff, bai, kontxo, zalantzarik gabe, eta ez bakarrik pederasta bat delako, pederastiaren aldeko gauzak idatzi dituelako ere bai, noski, zenbait saiakeratan –eleberrietan orobat, baina hori beste kontu bat da–; autorearen erabat egiten da gaitzesgarri, bere obra zer esanik ez. Louis Althusser, ea, bada emaztea hil zuen, buruko gaixotasuna ez dakit aringarri den, beraz pertsona ezin izango genuke goratu, bistan da, baina obrarekin zer egin, pentsalari marxista ezinbestekoa izanik. Gainera, 1977. urtean, hainbat intelektualek gutun ireki bat sinatu zuten, Frantziako zigor kodea errebisatzen ari zen batzordeari, praktikan pederastiaren zigorgabetasuna ekarriko zuen eskari bat. Eta sinatzaileen artean Matzneff, jakina, Althusser bera, eta, besteak beste, Simone de Beauvoir adibidez. De Beauvoir, bai, pederastiaren zigorgabetasuna eskatzen. Zer egin beharko genuke orduan *Bigarren sexua* idatzi zuenarekin?

Tarteka berritzen den arren, ez da eztabaida berria: zer egin moralki gaitzesgarri izan daitekeen autore baten obrarekin. Alegia, banandu ote daitezke autore baten bizitza eta obra, autorearen beraren morala eta obrarena. Ez da eztabaida berria, ez eta ebazten erraza ere. Mutur batetik besterako erantzunak aurki ditzakegu eta, bateraezintasunetik bereizezintasunera. Baina, autorearen morala eta obrarena bereizi ezin direnean ere, zer egin behar da obrarekin? Inork ez dit iritzirik eskatu, baina aitortuko dut ez daukadala moralaren polizia, are inkisidorea izateko batere bokaziorik, eta ondorioz adierazpenari ahalik eta hesirik zabalenak jartzearen aldekoa naizela. Ze bestela, estutuz-estutuz, ez dakit irakurtzeko ezer geratuko litzaigukeen ere. Esan nahi dut, oso tikismikis jartzen bagara, inork gutxiak pasako lukeela azterketa moral zorrotzik. Eta eztabaida beti osasuntsua izateak ez du kentzen jarrera batzuk arriskutsuak izan daitezkeenik. ●

EZ HANKA EZ BURU

ADUR LARREA

www.adurlarrea.com



"EGUBERRITAKO ARGIAK ENERGIA-XAHUKETA BAT DIRA"

DONOSTIAKO EGUZKI TALDE EKOLOGISTA

"Azken urteotan, udalen artean txapelketa moduko bat eratu da, ea zeinek gastatzen duen gehien eguberritako argietan. Zertarako Klima DSS2020 Ekintza Plana, baldin eta gero eguberritako argien bidez energia xahutzen bada, xahutzen den moduan? Eguzkitik Udalarri bi gauza baino ez dizkiogu eskatuko: eguberritako argiak gehienez ere 9ak arte piztea eta erabilitako energia, behintzat, iturri berriztagarrietatik datorrela bermatzea. Aurten Donostian ez dugu noria argitsurik izango, behintzat". 2020/11/27



EKONOMIAREN TALAIAN

Aurrezpena, edo desorekaren erretratua



JUAN MARI ARREGI

Pandemiaren ondorioz, familia asko aurrezten ari dira, baina era berean, prekariedade handia dago bereziki gazteen eta kontratu prekarioak dituzten emakumeen artean. Momentu honetan gizartean dagoen aurrezpen mailak egungo desberdintasuna erretratatzeko du, batez ere kontsumoaren eta haren muga beldurak sortzen duelako jendearen aurrezteko joera.

Euskal erakundeek datu ofizialik ez dugu, baina bai Frantziako eta Espainiako estatuena. Adibidez, Espainiako Bankuaren datuek diote aurrezki gordina 38.996 milioi euroraino igo dela urteko bigarren hiruhilekoan Espainiako Estatuan, hamabi hilabete lehenago baino %174 gehiago. Familien errenta %8,8 jaitsi bada ere (200.000 milioi euro inguru), kontsumo-gastua ere inoiz ez bezala murriztu da, %24 (132.222 milioi bigarren hiruhilekoan). Eperako eta ageriko saldoek 47.500 milioi euroko hazkunde izan dute urtariletik eta 877.500 milioi iritsi dira.

Aitzitik, errealtateari argazkia ateratzen badiogu, ikusiko dugu krisiak gehien kaltetutako langileen ia heren batek ez duela hilabeteko errentaren adina diru ere eskura erabilgarri, eta gainera, bankuekin zorretan bizi dela. Kontratu prekarioak dituzten gazte eta emakume asko dira, eta une honetan, aurreztu beharrean, gehiago zorpetzen ari dira. Desberdintasunaren argazkia da.

Kontsumorik gabe ez dago susperraldi ekonomikorik, enpresek ez dute ekoizten, enplegua suntsitu eta prekarizatu egiten da gehiago. Aurrezpena usteldu egiten da, herdoildu, eta balioa galtzen du. Enpresa handiek ez dute funts propioetara jo nahi, erreskate publikoak eskatuz, etekinak pribatizatzeke eta galerak gizarteratzeko politikari eutsiz. Erreskate publikoa bada, gutxienez nazionalizatu ditzatela. ●

ANALISIA



Zaintzak, garaiotan

AMAIA LEKUNBERRI ANSOLA

Konfinamenduan, isolatzeak aterabidetik baino galbidetik gehiago zuela oharturik, zaintza sareak eratu ziren han-hemenka, eta kolektiboaren, elkar-babesaren eta elkar-zaintzaren garrantzia azpimarratu. Joan dira ordutik zenbait hilabete, eta zaintzak segitzen badu ere ezkerreko sektoreen diskurtsoetan presente, antzeman daiteke beronen ulerkerari dagokionean ezberdintasunak azaleratzen hasi direla.

Ezberdintasun horiek zerbaitekin egin baditu ageriko, izan da kaleak hartu eta protesta egiteak egungo testuinguruan duen (des)egokitasunaren bueltako eztabaida. Zenbaitekin, osasunaren izenean, etxean geratzearen aldeko postura agertu du, argudiatuz gu guztion zaintzak horixe exijitzen duela momentuotan; postura horretatik protesten kriminalizazioa egitera iritsi denik bada, protesta eta zaintza kasik aurkakotzat agertuz, eta kaleak hartzea eskuin muturraren logika neoliberaleretan erortzea litzatekeela ulertzea emanez. Bestelako iritzia agertu duenik bada, argudiatuz kaleko mobilizazio oro eskuin muturrekotzat jotzea ezkerreko protestarako zilegitasuna deuseztatzea litzatekeela, eta bizi dugun koiunturak exijitzen duela kalera ateratzea, izan oinarritzeko eskubide eta zerbitzuen alde, izan eskuin muturrak jendearen ondoeza kapitalizatzea eragozteko.

“Protesta oro negazionista da” premisari jarraiki iritzia publikoaren zati handi batek kontrakoa egozten dion arren, zaintzaren esangura zabalena bigarren posturak darabilenaren iritzikoa naiz. Izan ere, pandemia hasi zenetik gaiztotuz doan egoera –aspaldiko krisi ekonomikoko bortitza dirudiena dugu ate joka– ari da eragiten geroz eta jende gehiagok ez izatea bermatuta beharrian material oinarritzkoenak, eta minimo horien bermeak, errealtate horren aurrean sorgor dirauen agente klasearen aurrean, exijitzen du kalera atera eta protesta egitea; bai behintzat jendartearen estratu zaurgarrienetarako helduko den zaintzaz badihardugu, guztion osasunaz hitz egin nahi badugu.

Geroz eta gordinagoa den egoeran urkoaren zaintzak exijitzen ditu geroz eta irmoagoak diren esku-hartzeak, alegia. Klase zantzu argiak dituzten “osasun” neurrien aurrean, diskriminatzailea ez den zaintzak ezinbestean baitakar gatazka. Horren adibide, azkenaldian hainbat etxe kaleratzeren aurkako mobilizazio jendetsuen irudiak ari zaizkigu heltzen, Kataluniatik gehienbat, ageriko eginez osasunaren izenean etxean gelditzeko agintzen diguten berberak jendea aterperik gabe uzteko eskrupulurik ez dutela; eta halakorik ekiditeko modu bakarra, gaur eta hemen, kalea hartu eta erantzun sendoa artikulatzea dela. Zaintza amaren magalaren goxotasunarekin lotzen badugu ere, nekropolitika inposatzen denean eta pribilegioen arabera denean, ezinbestean doalako gatazkaren eskutik. ●

“Telefonoz ez da sendatzen” kanpaina abiatu dute

ARGIA

Askori gertatu moduan, aurrez aurre artatu beharrean behin eta berriz telefonoz aritu behar izan zuen medikuarekin Sonia Sainzek, eta Barakaldoko Gurutzeta ospitalean ere saiatu zen Gaztela Leongo emakumea, baina ospitaleratu zutenerako berandu zen, minbizia zuen, metastasiarekin, eta hil egin zen. Ahal diren kontsulta guztiak aurrez aurrekoak izatea eskatuz sinadura bilketa jarri du mar-txan haren familiak.

HIRU HILABETE TELEFONAZ

“Hil baino lau aste lehenago izan zuen Soniak bere gaixotasunaren berri, Gurutzetan ospitaleratu zutenean. Or-dura arte, hiru hilabete eman zituen familia-medikuarekin telefonoz. Gurutzetako larrialditara joan zenean, bertaratu izana leporatu zioten, koronabirusaz kutsatu zitekeela esanaz”, kontatu du bere ahizpak.

150.000 BAINO GEHIAGO

Sistematikoki telefono bidezko kontsultak egin ordez, telefonoz egiten direnak salbuespenezkoak izatea eskatuz kanpaina abiatu du Sonia Sainzen ahizpak, eta dagoeneko 150.000 sinadura baino gehiago bildu ditu Change.org-en, “Telefonoz ez da sendatzen” lelopean.



XABI VALDOR SOBRO

PLAZARA ATERA DA HEZKUNTZA

HEGO EUSKAL HERRIA. Hezkuntza Plazara ekimenak hezkuntza komunitatea mobilizatu zuen abenduaren 1ean, eta aldarrikapena kalera atera zuten Hego Euskal Herriko hainbat txokotan. Aldarrikatzen dute, besteak beste, arrakalak gainditzeko baliabideak bermatu daitezela, “behar gehien duten kolektibo eta ikastetxeetatik hasita”. Eskolak auzoan eta naturan ematea ere eskatzen dute, haurren eskubideak errespetatzea, ratioak jaistea, curriculumak malgutzatzea, euskara oinarri izatea...


HIESA

700.000

pertsona hiltzen ditu HIESak urtero, Nazio Batuen Erakundearen arabera. Horietatik 80.000 haurrak dira. HIESaren aurkako borrokaren nazioarteko egunean, gogoratu dute estigma handia duen birusa dela oraindik, osasun krisiaren erdian HIESa dutenen zaurgarritasuna areagotu egin dela, eta aurreiritzirik gabeko sexu heziketa ezinbestekoa dela txikitatik.



ASILOA. LGBTI+ kolektiboko errefuxiatuentzako munduko lehen harrera zentro publikoa ireki dute Madrilan. Harrera gunearen helburua nazioarteko babesa eskatzen duten pertsonen integrazioa eta inklusio-prozesu bat garatzeko gune seguru eskaintzea da.



KONTROL SOZIALA. Pauso bat atzera eman du Frantziako Gobernuak polizien irudiak grabatzea mugatzen duen “Segurtasun globala” deitu lege-proposamenari dagokionez eta berridatzi egingo duela aitortu du. Hala ere, ez du inolako zehaztapenik eman moldaketei dagokionez.



OSAKIDETZA. Aurreikuspen falta, 12 ordu baino gehiagoko lan-txandak, osasun zentro bakoitzean protokolo desberdinak... Azaro hasierako Espainiako eta EAEko Lan-Ikuskaritzaren txosten batek agerian utzi ditu Osakidetza izandako hainbat irregulartasun.

PLANETAREN ARNASAK ZUHAITZ ETA OIHANAK BEHAR DITU TROPIKOETAN ETA... BATEZ ERE EUROPA ZAHARREAN

Deforestazioa geldiarazteaz gain, milioika zuhaitz gehiago behar ditu Lurrak klimaren zoratzea gelditu, euriak ugaritu eta biodibertsitatea berreskuratzeko. Baina ez begiratu soilik Amazonia edo Kongo edo Indonesiako hondamendiei: Europan lan handia daukagu duela mende gutxi arte edukitako basoak berreskuratzen. Egin daiteke apustu handiekin eta baita urrats txikiekin ere, oihan sakon europarra eraikiz edo gure ondoan zuhaitz eta heskaiak landatuz.

 PELLO ZUBIRIA KAMINO

Munduak 2019an Belgikaren azalera adinako oihan primario puska galdu du” zabaldu dute agentziek. Funtsean tropikoetako oihanek kezkatzen dute planeta, horien suntsitzearekin galtzen ari garelakoan CO2a irentsi dezaketen birika erraldoiak, euriak eta gizakien biziraupenak beharrezko duten biodibertsitatea. Orotara galdutako 12 milioi hektarea basoen laurdena –3,6 milioi hektarea– oihan primarioen suntsiketan galdu dira, erdia Brasil eta Indonesiako eta gainerakoa Kolonbia, Boli Kosta, Ghana eta Kongon.

Horregatik, Mendebaldeko prentsak holakoetan tropikoetako zuhaitz eta animalia mehatxatuak baizik aipatzen ez dituelako, deigarri egin da honakoa leitzea: “Europan oihan primario bat sortuko dugu eta 600 urteko lana izango da”. Francis Hallé botaniko eta zuhaitzen aldeko militante suharrak abiatu du Europan 70.000 hektareako oihan basatia antolatzeko kanpaina.

“Oihan primarioa –dio gure Wikipediak– oihan birjina ere deitua, gizakiak inoiz ez ustiatu ez zatikatu ez duen basoa da”. Gaur egun, Europaren lurrazalaren %0,7 dago osatuta antzinako oihan primarioz, zenbait ikerketaren arabera. Europako baso primario handi bakarra Białowieżakoa da, Polonia eta Bielorrusia artean 142.000 hektarea hartzen dituen, Gipuzkoaren azalaren ¾. Munduaren ondare deklaratu, alde guztietatik erasotuta dagoela sala-

tzen dute ekologistek. Karpato Mendietan badago ia 30.000 hektareako beste oihan bat, mehatxatua hau ere. Horiez gain, antzinako oihanen azken arrastoak geratzen dira sakabanatuta, tartean Nafarroako Pirinioetan dagoen Aztaparretakoa.

Europako eskoletan “ingurumena” irakasteen haur eta gaztetxoei, Kongo, Amazonia edo Borneoko oihanez adina hitz egin beharko litzaieke Europakoez eta erakutsi gure kontinente aberatsaren soilte izugarria adierazten duten mapa kronologikoak, 2009an *The prehistoric and preindustrial deforestation of Europe* ikerlanean aurkeztuak. Oi, Europa, zer hintzen eta non hago!

“Duela 8.000 urte urtxintxa bat joan zitekeen Lisboatik Moskuraino lurrik ukitu gabe”, diote adituek. Askoz beranduago ere berdintsu zen, duela erromatarrek iritsi aurretik Penintsula Iberiarra berde ageri da mapan, gaur Alemaniak daukan berdez. Heldu ziren nekazaritza eta goldeak estreina, gero basoen eraistea gerra, eraikuntza eta ikatz eta industriarako, nekazaritza industrial berrikita... Europa ahaztera iritsi da duela ez hainbeste denbora oihan sakonen eta zuhaitz erraldoien lurraldea izana dela, gaur basamortu bilakatzeko bidean diren Mediterraneo bazterreko lurak barne. Francis Hallé biologo frantses famatuak ohartarazten duenez, AEBk, Errusiak, Txinak, Argentinak, Txilek... badauzkate oraindik an-

tzinako oihan batzuk, murriztuak izanik ere; europarrok denak suntsitu ditugu, izan ginenaren eta oraindik berriz izan gintezkeenaren memoria ere galduta.

Hallék ikerlan nagusiak tropikoetako oihanetan burutu ditu, berari zor zaio hango zuhaitz erraldoien gaineko ekologiaren eta animaleen ezagutzaren parte handi bat. Baina zahartzaroan Europako zuhaitz eta basoen defentsan zentratu da, tropikoetako jendeei ezin zaielako eskatu eremu basatien alde inplikatzeari, baldin eta europarrok ez badugu gure partea egiten azken 30 mendeotan galdutakoa berreskuratuz.

BIODIBERTSITATEA BIZIBERRITZEKO

Plaidoyer pour l'arbre (“Zuhaitzaren defentsan”) liburuaren egileak bere 82 urteekin lanean, argitaratzen eta ikasten jarraitzen du, orain 70.000 hektareako oihan primarioa sortzeko kanpaina. Zuhaitziaren neurria hartzeko, Zuberok 80.000 hektarea ditu, Gipuzkoako Goierri eta Tolosaldeak batuta 75.000. Oihan horretan gizakiak ez du ezer egingo, ez bada modu ordenatuan eta helburu didaktikoz bisitatzea; gainerakoan, natura utzi bakean bere basatian, beren kasa garatu daitezela zuhaitz, landare, animalia, ondo... Ez erein, ez landatu, “naturak oso ondo daki bere lana egiten, haziak oso ondo dakite bidaiatzen... baina denbora utzita” dio Hallék. Denbora? Oihana berreraikitzeke eremu soilduak



BIALOWIEZA

POLONIA ETA BIELORRUSIA
ARTEAN KOKATUTAKO OIHAN HAU
DA EUROPA GIZAKIAK KASIK
UKITU GABE GERATZEN ZAIGUN
BAKARRETAKOA. (ARGAZKIA: WWF)

hautatzen badira, 1.000 urte beharko dira; jadanik badauden basoetatik abiatuz gero, lau edo sei mende. Belaunaldi askoren artean burutzeko lana. “Ez dakit Lurra nolakoa izango den sei mende barru, kezkatuta egoteko motiboak dauzagu. Baina zer egin dezakegu hoberik orain goazen norabidearen kontrakoan zerbait egitea baino? Gure esku dago”.

Halléren inguruan bildutako elkarteak Frantzia, Suitza eta Alemania arteko muga inguruetakoko basoak jo ditu begiz proiektua gaurko zuhaitzi zaharreneetatik abiatu ahal izateko. Europako Batzordearen lehendakari Ursula Von Der Leyrekin egon dira asmoa Europako Itun Berde berrian kokatzeko. Nazio Batuen Erakundearen idazkari nagusi Antonio Guterresengana ere jo dute, planeta mailan Basoen Itun Berria (*Forest New Deal*)

abian jartzen saiatu eta zuhaitzak “gizariaren ondasun komuna” izendatu ditzaten eskatzeko.

Zuhaitzak hazi daitezela gehienezko tamainaraino oihan beltza sortu arte, eta pixkanaka ugaritu daitezela suntsitu aurretik Europan ziren animaliak, otso, bisoi, hartz, uro... “Eta hala ere... 70.000 ez da aski. Norabide onean egindako urratsa da, noski, baina ur tanta bat adinakoa”.

Maisu zaharraren ideia osatuz bezala, agroekologia frankofonoan azken urteotan erreferentzietako bat bihurtu den Hervé Coves agronomo eta zientzialariak *Manifeste pour une agriculture de l'amour* (Maitasunezko nekazaritza baten aldeko manifestua) programan zuhaitzak eta oro har biodibertsitatea berriro Europako soroetara ekartzeko

urrats zehatzak proposatu ditu. Hallék proiektu handia sustatzen du ikurtzat; Covesek edozein herritarrek txikitik abiatzeko moduko urratsak. Urratsez urrats Lurra berreskuratu ditzan eurak, biodibertsitatea eta oparotasuna.

Berradiskidetu elikagaien ekoizpena eta zuhaitza, laborariak –kaletarrak ere bai!– eta bizi basa. Soroen inguruetakoko heskaiak berreskuratu, hegazti eta klase guztietako izaki bizidunen babeserako. Hektarea bakoitzeko 40 zuhaitz landatu, handi, txiki eta sastrakak kontatuta; gizaki batek pixkanaka erraz lor dezakeena. 100 hektareako –kilometro karratuko– gutxienez zuhaitz bat utzi zahartzen betiko. Tarteka baso batzuk bereziki babestu biodibertsitatearen santutegitzat... Egitarau bikaina garai nahasiotarako. ●

ZINKUNEGI OPTIKA

Hernani 23 - 20004 Donostia
T. 943 420 624
info@zinkunegioptika.com
www.zinkunegioptika.com

f w

Constanza Barrios

MIGRATZAILEAREN BIZI ISTORIOA



600 EURO IRABAZI ETA 50 GORDETZEN NITUEN NEURETZAT, GAINERAKOA PARAGUAIRA



2005ean heldu zen Paraguitik, lanera, bere bi seme-alabei han unibertsitate ikasketak ordaindu nahirik. Egin zuen lan, irabazi zuen diru, burutu zituzten ikasketak etxeko biek. Bitartean, euskalduna esposatu zuen, gutartu zen... Urrian alargundu zen. Hiru aste gabe itzulia zen Amerikara, betiko.

 MIEL A. ELUSTONDO  ZALDI ERO

Hamabost urte gure artean, eta bazoazela jakinarazi didate.

Bai, Asunciónera, Paraguaia, hangoxea bainaiz. Hiru aste da senarra hil zitzaidanetik. Hasieran ez nekien zer egin, baina laster jabetu naiz: nire senarrarekin bat eginda nengoen, hura gabe ez dut hemen ezer egiten, ez nago lanerako, ez jateko... Zazpi kilo galdu dizkizut hiru astean. Galduta nago, noragabe nabil... Hobe dut joan. Etxera joatea erabaki dut. Banoa. Duela hamabost urte heldu nintzen. Ez nintzen nire gogoz etorri, dirua irabazi beharrak ekarri ninduen, nire bi seme-alabek ikasi ahal izan zezaten etorri nintzen...

Ordu arte sekula zeure herritik irtena zinen?

Bai. Bizi-eskarmentua zer den... Ho-

geita bat urterekin ezkondu nintzen. Bi seme-alaba izan genituen. Aita New Yorkera joan zen, lanera, hamaika paraguaiarrek egin ohi duen moduan. Urtebetera, harako bidaia-txartelak bidali zizkigun hiruroi, eta bi umeak hartu eta New Yorkera joan nintzen. Sei urte egin nituen han. Egun batean, senarra etxetik irten, eta ez zen itzuli. Abandona-tu egin ninduen, bakarrik utzi ninduen gure bi umeekin Queens-en. Alabak hiru urte zituen, semeak bost. Etxera hots egin, eta aitak: "Etorri etxera denok, hirurok!". Bidaia-txartelak erosi zizkigun, helarazi, eta itzuli ginen Asunciónera. Senarra handik hogeitatera azaldu zitzaigun berriz. Alabak ez zekien hura nor zen, eta semeak, aldiz, ez zuen begien aurrean ikusi nahi izan. Mutikoa zeharo minduta zegoen.

Eta Asunciónera itzulirik, zer bizimodu egin zenuen?

Etxera heldu, eta umeek estudiantu egin behar zuten. Eta nora eraman haurrak? "Ama, eskola publikora, ala pribatura?", galdetu nion. Baina ikastetxe publikorik ez baitzegoen gure auzoan. Hurreko ikastetxe pribatura joan eta galdetzeko agindu zidan amak. Sor Eusebia Palomino ikastetxea zen, salestarrak mojak. Joan eta zuzendariarekin hitz egin nuen. Handik urte batzuetara hona etorritaraziko ninduen izan zen! Sor Justa Pavetti. Harekin harremanetan nago oraindik! Badaki gizona hil berri zaidana, eta zain daukat... Lehen aldi hartan nire historia kontatu nionean, berak: "Nahi duzu lan egin?". "Bai, horixe nahi dut, lan egin! Errabiatua nago! Eta nire seme-alabek ikastea ere nahi dut". Sor Justak, orduan:



Constanza Barrios López

ASUNCIÓN, PARAGUAI, 1961



Jaio zen hirian hazia, ezkondu eta New Yorkera egin zuen, bi haurrekin, senarra haraxe joan baitzen lanera. Gizonak abandonatu zuelarik, etxera itzuli zen, Asunciónera beti. Zortzi urtez lan egin eta, lana galdu, eta Espainiara joan zen, 2005ean, lanean beti. 2007an heldu zen Euskal Herrira, eta bertakotu zen. Bere gizonazkoarekin bizi zen, harik eta hil arte. Bakarrik, noragabe, atzera etxeko habiara egin du hegazti migrariak. Guraso eta seme-alabekin da Asunciónen, ongi, jakinarazi digunez.

“Oraintxe, atezaina behar dugu. Onartuko zenuke postua?”. Baietz esan nion, zirkinik batere egin gabe. Eta horrelaxe.

Hortaz, zerk etorraz zintuen gure alderdira?

Zortzi urte egin nituen lan ikastetxe hartan, eta hantxe bertan ari ziren nire seme-alabak ere, ikasten. Haiek ikasketak burutu eta ez zidaten kontraturik berritu. Haatik, kalte-ordaina eman zidaten. Hala eta ere, Sor Justari galdetu nion: “Eta zer egin behar dut nik orain? Seme-alabek unibertsitate ikasketak izan ditzaten nahi dut, eta ordaindu beharra dago!”. Eta berak: “Nahiko al zenuke Espainiara joan? Hemengo moja bat dugu Madrilén, eta harekin harremanetan jarri ezinik ez dut. Inguratuko dizu lana hark”. Eta halaxe etorri nintzen. Lehenengo, Madriler. Airekotik jaitsi eta zain nuen moja.

Eta zer lan egin zenuen Madrilen?

Barneko langile, familia baten etxean, Majadahonda (Madril, Espainia) herrian. Senar-emazteak ziren, bi ume txikirekin. Hargatik nahi ninduten interna. Han urtea egin eta lanez aldatu zuten etxeko gizona, eta beste etxe batera joan behar izan nuen, interna betiere, Cuatrocaminos (Madril, Espainia) herrira. Urte pare bat-edo egin nituen bigarren etxe hartan, zaintzen nuen andrea hil zen arte. Alzehimerra zuen, erasokorra zen, baina zuzentzen ikasi nuen. Etxetik irten besterik ez zuen nahi. Horretan zen beti: kostarik kosta, etxetik irten nahi! 92 urte zituela zendu zen. Eskelan, senide ilararekin batera jarri zuten nire ize-na, oso eskertuta baitzeuden.

Noiz etorri zinen, bada, Euskal Herrira?

Orduantxe, bada! Berriz ere lanik gabe ni, Paraguaiko mojari hots egin, eta berak: “Hortxe dut nire iloba ere, jar zaitez harekin harremanetan”. Haren iloba Donostian ari zen! Olga. Eta hots egin nion, eta esan zidan: “Etorri honako alderdira!”. Ni goian zerua eta behean lurra nengoen, lan egin nahi nuen, eta delako Olgari hots egin nion: “Baina, Olga, non zaude, non da San

Sebastian hori?”. Eta berak: “Hementxe, Espainia duzu hau ere, baina iparraldean da, Frantziarekin mugan. Eta horrelaxe etorri nintzen hona.

Lan egin nahi zenuen...

Bai, horixe! Eta Donostiara etorri eta bi hilabetera, Arantxa izena zuen euskaldun baten ordezkari nintzen Donostian, Miraconchako etxe batean. Izen famatua zuen familia hark... Han, atso xahar bat zaindu behar izan nuen. 101 urte zituen! Goizean goizik haren etxera joan eta arratsaldeko laurak edo bostak arte egoten nintzen bertan. Bizi, apartamendu batean bizi nintzen, lauzpabost neskarekin... Egun batean, telefono-deia. Gizonezko bat hariaren bestaldean. Berehalaxe oharatu zen okerreko zenbakia markatua zuela, baina hizketan lotu ginen, luze. 2007ko uztaila zen. Harrezkerro, behin eta berriz eta askotan hitz egin genuen, telefonoz, harik eta elkar ikustea erabaki genuen arte.

Maitasun istorio...

Baita izan ere! Artzain Onaren plazan ikusi genuen elkar lehenbizikoz, eliza hartaraxe joaten bainintzen ni erre-zu egitera, oso sinestuna bainaiz. Han nengoen ni, zain, eta sakelakoak jo zuen. Hartu nuen orduko, aurrean azaldu zitzaidan telefonoko ahotsetik besterik ezagutzen ez nuen gizona, senar izango nuena, nahiz ez ginen ezkondu, konforme bai-kinen halaxe. Gero, harekin, Azpeitira etorri nintzen, zenbait ikastaro egin nituen eta adinekoak zaintzen trebatu nintzen. Jakina, Donostian gaztelania zen nagusi, baina hemen (Azpeitia), euskara. Hala eta ere, jarri nintzen horretara ere.

Paraguaitik etorria, euskaraz ikasia? Zertan ari gara gaztelaniaz?

Poliki zu ere! Ez dakit euskaraz, nahiz gizonak hitz egiten zidanean ulertzen nion, bera ere nik uler nezan saiatzen zelako, beharbada. Zaintzen nuen emakumearekin berdina gertatu zitzaidan, Joxeparekin. Nekez mintzatzzen zen gaztelaniaz, eta haren euskara-gaztelania hartara egokitu nintzen. Gustura zen nirekin. Joxepa, esan nahi dut. Buruko isuria izan nuenean, ez



zuen etsi nahi izan. Nirekin nahi zuela esaten zuen. Ebakuntza egin zidaten, eta atzera neure onera itzuli behar izan nuen. Eta akordatzan naiz nola hasi nintzen berriz ere oinez, gizonari besotik helduta... Bi hilabete joan ziren indartu nintzeneraino. Gizonari esan nion: "Nahikoa. Lanerako gauza naizela sentitzen dut. Banoa, Joxepa ere zain daukat-eta". Joxepa bi hilabete egon zitzaidan zain!

Buruko isuria izan zenuela esan diguzu...

2008an. Geneetan daramagu, inondik ere, gure amama ere halaxe ezindut baitzen. Jainkoari eskerrak, osatu nintzen, ikusmen gorabehera txiki batzuk baldin baditut ere. Batzuek pentsatuko dute gogorra izan zela, eta gogorra izan zen, baina okerrera nostalgia da beti, etxe-koak ez ikustea. Hasieran oso neke gertatu zitzaidan. Ikaragarria da herrimina. Oraingo egunean hor dira beti sakelakoak, eta gaitz erdi: hutsik ere egin gabe jotzen dut astero etxera. Igandea zela, nonahi ginela, eguerdian etxera behar nuen, ordu bietan etxe-koekin hitz egite-

ko. Gurasoak zer moduz ziren, seme-alabak zer moduz... jakin beharra nik! Senarra hil aurreko asteburuan, esan zidan berak: "Triste zabilta!". Eta, zuzen zegoen, gabonak zetozen, eta triste ni, hilabete ezohikoa baita niretzat, nostalgia hori areagotzen da nire baitan. Baina banoa, hantxe igaroko ditut gabonak, aspaldi ez bezala.

Hemendik joatean, zer utziko duzu atzean?

Nik Patxi nuen hemen, nire gizona. Hura hil delarik, ez dut ezer, hutsik nago, tokiz kanpo, noragabe... Bera falta zait. Bera bizi zelarik, lanetik irten eta airean joaten nintzen, etxera zuzenean. Banekien bera hantxe izango nuela. Etxe zalea naiz, baina ez nuen nahi berak lagunartea galtzerik, eta halaxe irteten ginen, ez zedin lagunengandik urrundu. Irteten ginen, baxoerdiren bat edo bi hartu, mokadutxoren bat egin... Inoiz, Donostiara jotzen genuen, gustuko hiria baitut. Urgullen barrena ibiltzen ginen, hondartzan, eskutik helduta beti. Horixe esaten ziguten: "Eskola zaharrekoak zarete, eskutik helduta beti!". Egia izan!



GUARANIERA

"Guaranieta eta gaztelania ditugu hizkuntza ofizialak! Landa eremuan, eguneroko hizkuntza da. Gurean, etxean, gaztelaniaz hitz egiten genuen, baina eragozpenik gabe ulertzen dut guaraniera, amamak ez baitzekien besterik, eta gurasoek ere nahi bestetan hitz egiten baitute guaranieraz. Aitak, bestalde, liburu bat egin du guaranieraren gainean, horixe baitzuen pasio, herri jakintza biltzea".

PARAGUAIARRA

"AEBetan paraguaiar asko dira. Hemen, gutxi. Donostian, mordoxka omen dira, hala eta ere. Ez dakit. Neure herri-koekin ibili zale txikia naiz. Batak 8 euro irabazten duela, besteak 6, eta ezinikusia! Aitak esaten zidana: 'Hemengoekin, ahal den gutxiena ibili'. Izan ere, ava gara, indioak, eta halakoxeak gara, bekaizti hutsak. Hargatik zaindu izan dut beti neure bizi pribatua. Horretan oso zuhurra izan naiz beti".

TRATU TXARRAK

"Hamar urte egin nituen emakume bat zaintzen. Tratu txarrak harexek! Irainka hartzen ninduen, "senar ordekoa duzu", esaten zidan. Makulua ere bazuen, eta ahaleginak eta bi egiten zituen ni jotzeko. Burutik zuzen zegoen, baina gaizto xamarra zen. Ez dut esango gaiztoa zenik, baina 'gaizto samarra'. Goian bego, hala ere".

Azken hitza

VICTOR BARRIOS ROJAS

Gure solaskideak Victor Barrios Rojas du aita, Paraguaiako irratigintzaren historian ageri den izen handietakoa. Kazetari eta herri-jakintza biltzaile porrokatua, hamaika lan egin da eta, horien artean, Paraguaiako hiru idazle erraldoiri -Augusto Roa Bastos, José Luis Appleyard eta Oscar Ferreiro- egindako elkarbizketa liburua. 88 urte ditu egun.

Zeure helburua gauzatuta zoaz, bederen.

Seme-alabek unibertsitate ikasketak egin zitzaten etorri nintzen lanera, eta egin dituzte ikasketa horiek! Duela hamar urte burutu zituzten beren ikasketak! Ez zuten ondoan, edo gainean, inor behar izan, estudia zezaten. Nik ez bezala. Niri, bere garaian, aitzak ez zidan besterik esan: “Estudiatu, estudiatu, estudiatu!”. Nire seme-alabek ez dute horrelako tekelarik behar izan. Bazekiten hemen ari nintzela, gogotik lanean, eta haiek ere gogotik saiatu behar zutela. Begira, Madrilera heldu nintzenean, 600 euro irabazten nituen lehen etxe hartan. Gero, 800. Diru horretatik, 50 gordetzen nituen neuretzat, asteburuko kafetxoa hartzeko besterik ez. Gainerakoa, etxera bidaltzen nuen! Han ere, hemen bezala, dena ordaindu beharra da.

Agur, baina ez adiorik?

Agur, eta ez adiorik. Askok esango dute: “Azkar joan da, horratik!”. Eta egia da, azkar, baina egia ere bada ez dudala ezertarako gogorik. Zazpi kilo galdu ditut gizona hil ondoko hiru asteetan. Ez dut lanerako bihotzik, ez jateko borondaterik, ez kalera irteteko tirriarik...

Ezertarako pozik ez! Alabaordeari esan niona, erabakia sendo hartu nuenean: “Banoa, Maite, mailetak egin eta banoa. Badakit gauza ez dela horrela, baina ez naiz gauza! Egin beharreko tramiteak egin, argia, ura, gasa... denetan baja eman eta banoa”. Eta Maiteren erantzuna: “Egin behar duzuna egin, Constanza, esker oneko gaituzu, zoriontsu egin zenuen gure aita, geure begiez ikusi genuen hori. Eskerrik asko”. Baina nik, ez bainengoen konforme: “Barkatu, egin dudana baino gehiago egin ez badut. Zuen aitzak bizia salbatu zidan, eta nik ezin izan diot bizia salbatu”. Eta Maitek: “Constanza, zuk aita lurpetik atera zenuen, gaizki baitzegoen, eta zoriontsu izan zarete, geure begiez ikusi dugu”. Neke egiten zait oraingo egotia, maite dut herri hau, baina bakarrik sentitzen naiz, negar egiten dut... Lagunduko nautela esaten didate denek, baina nork bere bizia du, nork bere lan eta korapiloak. Eta, okerre, gizona falta zait, joan da. Gizonak berak esaten zidan, bezeroez ari zela: “Bai, dena iji eta

aja, baina behar denean, inork laguntzen ez”. Badakit nola den gauza. Hemengoak egin eta banoa. Niretzat kito da orain.

Atzera egokituko zara Paraguaira, Asuncióneko bizira?

Baldin baitere! Gurasoen etxera noa, jaio nintzen etxera. Neure etxea da, hantxe sortu ginen neba-ahizpa guztiok. Batzuetan, etxetik irten ez naizela iruditzen zait, harremanetan iraun baitu-gu beti. Sakelakoak direnetik, badakit etxean zertan diren eguneko momentu guztietan, seme-alabak lanean diren, edo etxean, eta ama noiz ari den matea hartzen, tere-re-a... Maiz kara hots egiten dit, edo hots egiten diot... Lanean ari naizela, sakelakoa amatatzen dut. Hori, beti. Banoa, bada- kit partez neke gertatuko zaidala, partez erraz. Jainkoaren grazia daukat, ondo ateratzen zait dena. Hantxe da Sor Justa, hark ez nau inoiz eskutik utzi, eta horixe eskatzen diot nire gizon zenari ere, ni eskutik ez uzteko: “Eutsi gogor eskutik, Patxi!”. ●

“
**Zaintzen nuen
emakumearekin
berdin gertatu zitzaidan,
Joxeparekin. Nekez
mintzatzen zen gaztelaniaz,
eta haren euskara-
gaztelania hartara
egokitu nintzen”**

Araba Kalitatea

MADE IN ARABA
100% NATURAL

Arabako elikagaiak
%100 kalitatea
%100 zaporea

araba álava
foru aldundia diputación foral



Iritziak

Neurrien neurria



ESTITXU GARAI ARTETXE
EHU-KO IRAKASLEA

Lehenengo neurria: iluna, arriskutsua eta oso kutsakorra da gaueko bizitza. Bigarren neurria: gazteak arduragabe hutsak dira. Hirugarren neurria: tabernetako sozializazioak du kutsatzeen errua. Lauugarren neurria: lantokietan ez da kutsatzerik gertatzen. Bosgarren neurria: Gabonak oso garrantzitsuak dira eta denak alaiak kontsumitzera. Seigarren neurria: norbanakoak oso gaizki egiten ari zarete eta horregatik gaude horren gaizki.

Euskal Herria estatu izango balitz, Europa mailan podiumean egongo ginateke milioi biztanleko hildako kopuruan. Ez da epidemiologoa izan behar COVID-19ari aurre egiteko neurriak behar-beharrezkoak direla ebazteko. Alta, botere publikoetatik hartutako erabakien bulkadak eta horiek komunikatzeko erak badute ageriko dimentsio sozial eta politikoa.

Eremu, jarduera eta kolektibo batzuk seinatu eta kriminalizatzeko ez da bidezkoa. Are gutxiago inongo ebidentzietan oinarrituta ez dagoenean. Zenbait gazte portaera arduragabeak izan ditzutela. Noski. Zenbait helduk bezalaxe. Tabernetan kutsatze batzuk gertatuko zirela. Noski. Beste lantokietan bezainbeste.

Lanean kutsatzerik ez dela gertatzen eman nahi zaigu aditzera. Horrela ekonomia babesten daudela pentsatuko

Ez dago kontraesanik
neurri are zorrotzagoak
behar direla
defendatzearen eta neurri
horien nolakotasun
eta bulkada epaitzea
ezinbestekoa dela
sinestearen artean

dute. Birus honen kutsatzeari buruz dakigunetik, ordea, argi dago hori ezinezkoa dela. Eusko Jaurlaritzak positiboaren %95 jatorri ezezaguneko zatia du. Lanetik kanpoko bizitza soziala erabat mugatuta dugu honetan, Sherlock Holmesi deitu beharko diogu auzia argitzeko.

Norbanakook arduratsu jokatu behar dugu. Ados. Musukoa, eskuak garbitzea, distantzia soziala eta aireztatzea. Zer egin behar dugu badakigu, eta gure kulpasumitzeko prest gaude: arduratsu jokatzeko ez da beti erreza eta zeinek gehiago zeinek gutxiago, guztiok dauzkagu erlaxatze edo hanka sartze uneak. Baina horren gainera badago kudeaketa publikoaren itzala. Lehendik zetozen osasun sistemaren egiturazko arazoak, pertsonal eta baliabide falta, behin-behinekotasuna, lehen arreta-

ren gabezia eta pribatizazioak, besteak beste. Pribatizazioari buruz ari garela, zahar-etxeen kasua paradigmaticoa da, gordin ikusi dugu negozioari ongizatearen gainera bide emateak zer dakarren. Osasun krisiaren kudeaketan ere, kalte-tuenak izango diren sektoreei erreparatuta, behin eta berriro izan dugu sentipena patronalaren interesak osasun irizpideen gainera jarri direla.

Oinarritzko eskubideen murrizketa gogorak jasaten ari gara. Kontzientzia lasaitzeko, ezinbestekoa litzateke sinestea guztion hobe beharrez ari garela. Horretarako, ez legoke gaizki ezarritako mugak zein irizpideren arabera hartu diren eta non eragin nahi den edo zer ekidin nahi den ñabardura guztiekin azalduko baligute.

Izan ere, ez dago kontraesanik neurri are zorrotzagoak behar direla defendatzearen eta neurri horien nolakotasun eta bulkada epaitzea ezinbestekoa dela sinestearen artean. Guztion osasuna jokoan dagoenean eta shock egoeran gaudenean zaila baita kritikotasunari eustea.

Irizpide kritikoari euste horretan, estimatzeko da euskarazko hedabideek orain eta beti egiten duten lana. Bolada batez ARGIAko txoko honetatik agur esaten dizuet. Eskerrik asko urte hauetan eskainitako leihorengatik. Gaizki esanak aintzat hartu eta ondo esanak pairatu. Hurrengo olatura arte. ●

Biba Gartxot



ANTTON OLARIAGA



ANE ABLANEDO LARRION
IRAKASLEA

Gartxot filma ikusi berri dut egunotan, ez dakit jada zenbatgarren aldiz, Lapurdin bigarren hezkuntzako irakasle nabilenetik urtero jartzen baitiet ikastalde guzietako ikasleei, salbuespenik gabe. Lehen aldia ez badut ere, hala balitz bezala jarraitu ditut oraingoan ere Gartxot eta bere seme Mikeloten ibilerak, bihotza uzkuratutik hain patu beltz eta tristeagatik, eta zeharo hunkituta Itzaltzuko bardoak erakusten duen duintasunagatik, libre izateari ematen dion garrantziagatik. Niretzat, horixe irudikatzen du Gartxotek: duintasuna, askatasuna, erresistentzia.

Kanpionek narrazio bilakatu eta Benitok kantuz zabaldutako gertakari/kondaira bat da filmak oinarrian daukana, euskaldunon eta latindarren arteko gatazka bat kontatzen duena, eta garbi uzten duena nor diren menderatuak, eta nor menderatzaileak. Filmean esplizituki erakutsia da azken hauen izaera suntsitzailea, gurekikoan duten azken helburua, eta horretarako darabilten bortizkeria gupidagabea. Eta filmari alde guzietarik samurtasuna badario ere, honek ez du inola ere estaltzen gure kontrako krudelkeria, ez eta batere eztatzen gure egoeraren gordina. Horregatik bakarrik,

gure arazo nazionalari buruz inoiz egin den filmik hoberena iruditzen zait niri Gartxot, bere xumean. Ez ote den bakarra.

Animaziozkoa izateak, pertsonaien estetika eta karakterizazioak, askatasunak duen balioaren aitortzak, eta horren harira planteatzen duen dilema moralak, neska-mutiko gaztetxoendako oso moduko filma bilakatzen dute Gartxot. Bai, gogorra da, badakit. Baina, nola ez da ba hala izango, gure herriaz, historiaz, hizkuntzaz, eta etorkizunaz mintzo den kondaira bat? Nik, Herriaren arazo nazionalaz ikasleak alfabetizatzen lagundu dezakeelakoan erabiltzen dut, euskara-irakasle eta batez ere euskal irakasle naizen aldetik, eginkizun hori ere badagokidala uste dudalako, dudarik gabe. Ikasleak laguntzea euskaldunon historia ezagutzen, gure arazoak testuinguratzeko gaitasuna garatzen, gertakariak kritikoki interpretatzeko gakoak izaten, eta errealitatea eraldatzeko adorea eta buru-argitasuna edukitzen.

Oso tresna egokia da. Oso modu serioan heltzen dio gaiari, dimentsio politikoak ematen baitio afera linguistikoiari, Euskal Herriak pairatzen duen menderakuntzaren testuinguruan kokatuz euskararen arazoa, eta aditzera emanez gaine-

ra erabat bateraezinak direla euskaldun gisa ditugun arazoen konponbidea eta gure mendekotasun egoera. Nik bederen horrela ulertzen dut istorioari esanahia ematen dion bukaerako gertakari nagusiaren zentzua: Mikelotek gure etorkizuna sinbolizatzen du, egoera horretan (oraingoa ere badena) Herriaren heriotza beste aukerarik ez dagoela jakitera emanez. A zer lezioa.

Gartxot filmak etxe guzietan egon beharko luke. Eta oraindik hala ez bada, Olentzerori eskatu.

Baina kasu dena den, "garai berri"-otako euskaldunak. Filma tendentziosoa da, alde aurretik markatua da gure emozioen norabidea, eta bideratuak pertsonaienganako sinpatiak eta antipatiak. Badakizue, euskaldun etnizista eta manikeo hauek. Kasu, zeren eta zuek ohartzera, gaiztoen bandoan ezarri izanen dituzte zuen hurrek latindarrak eta beren kolaboratzaile euskaldun leialak. Mintzatu beharko zatzaizkiete, serio, anaitasunaren balioaz, diferenteen artean elkarbizitza eraiki beharraz, entendimendua sustatzeko zubigile diren Frai Martin eta Jaun Merio horien funtsezko paperaz. Garai berriei egokitu beharraz.

Ai, Gartxot. Bazeneki. ●

Eta gehiagori



**RUBEN SÁNCHEZ
BAKAIKOA**
IRAKASLEA

Aurrekoan irakurri nuen Rikardo Arregiren zutabe batean Iban Zalduaren arabera euskal zutabegile batek noizean behin euskarari buruz idatzi behar duela, baldin eta entzute pixka bat nahi badu. Bestalde, zutabeetan nork bere egunerokotasuna agertzea ere estimatua dago, literatur lan potoloagoetan autofikzioaren gainean dauden eztabaiden aldean. Biak betetzera noa gaur.

Azken urtetan, bertso-irakasle eta *Auzoko* proiektuaren dinamizatzaile ibili naiz.

Gasteizko Alde Zaharreko bertso eskola nahiko bitxia da. Ramon Bajo eskolako Guraso Elkartek bultzatzen badu ere, GOIAN elkartearekin eta Landazuri ikastola publikoarekin batera zabaltzen da, eta beste eskola askotako umeak ere izan ditut: itunpeko eskoletakoak, publikoetakoak, eskola libre batekoak, eta hizkuntz-eredu ezberdinetakoak.

Iaz, A ereduko neskato bat izan nuen. Gainera, haren ama, Nigeriakoa, ostiralean etortzen zitzaidan euskara ikastera Auzokora. Beraz, ama euskara ikasten eta 10 urteko alaba A ereduko eskola batean egonagatik bertsolaritzan apuntatuta!

Aurten, duela urte bat Marokotik Gasteiza etorritako bi anaia -12 urte eta 10 urtekoak- eta euren 9 urteko lehengusina dauzkat, hirurak A eredukoak. Latinoame-

rikako beste 10 urteko mutil heldu-berri bat dut euskara gutxi dakiena, zorionez hau D eredu publiko batean dabil.

Auzoko proiektuan euskara ikasi eta bese-
telako hizkuntza eta kultura batzuk ezagutzen saiatzen gara. Nigeriakoa emakume hori bezala, izan ditut beste emakume batzuk ere, eurak Auzokora etorri eta euren umeak A ereduko eskola batean edo bestean dauzkatena. Ze arraroak diren etorkin hauek, ezta? (Izan ere, auskalo bihar hemen biziko diren, beraz, matrikulatu A ereduaren umeak, izan ere, eskola horretan haien herrialdeko guraso gehiago daude, izan ere...).

Beti izan dut sentipena Auzoko oso polita izan arren -eta niretzako dilistak (eta ardoak) ordaintzeko soldatatxo bat ekarrita ere- oasitxo bat dela basamortuaren erdian. Gasteizen eta EH osoan -eta hemen berdin dio nongoa zaren zu, irakurle hori- beste lurralde batzuetatik etorritako milaka lagun ari dira bi erdarak ikasten, debalde. Ez dute matrikularik ordaindu behar eta, ondorioz, ez dute eskolen %80ra joan behar dirua itzul diezaieten. Izango dute azterketa bat, bai, nazionalitatea lortzekoa.

Badakit astuna naizela ume guztientzat euskara murgiltze eredua publiko eta unibertsal bat eta helduen euskalduntze eta alfabetatze osoa debaldekoa eskatzen. 2020aren hondarrean. ●

Klase feminismoa hamar lerrotan



**ITZIAR BARDAJI
GOIKOETXEA**
IRAKASLEA

Azaroak 25. Manifestazio batekin topo egin eta leloen hitz askeak entzuten ditut "...emakume langileon borroka...". Gizonezkoen ahotsa entzuten da gehien. Kasualitatea? Ez dakit, baina eszenak kolpatu nau. Konturatu naiz, hiru-lau urteko prozesu bat burutu eta egonkortu dela.

Feminismoak urtetako gorakada dakar: presentzia, edukia eta onarpena. Zuzeneko borrokaren kultura baten baitan, konfrontaziorik gabeko ezker abertzalearen estrategia elektoralistan gazteriak ez du tokirik topatzen. Testuinguru honetan, eguneratze handirik gabeko olatu komunista batek gazteria ilusioz mobilizatzen du.

(Gizonezko) marxisten irakurketa erabat interesatuan, generoaren erronka klase antagonismoaren gatazkari azpiratua dago egituraz eta, bide batez, emakumeen askatasunerako borroka subjektua langile klasea da, osoa. Mutilek manifestan oihu egiten dute beraiek gauzatzen duten indarkeriaren aurka, burgesiaren errua baita. Klase feminismo izenpean identifikatzen ez diren feminismoek etsaiarekin aliantza egiten omen dute eta beraz ezin da beraiekin elkarlanik egin.

Horrela, belaunaldi berriarekiko haustura latza sortu da, feminismitik hain gozoki ospatu ditugun aurrerapausoen transmisioa interferentziaz betetzen duena. ●

Euskaralditik urrun



KIMETZ ARANA BUTROE
BARATZEZAINA

Ez ahobizi, ez belarriprest, ez dut aurtengo Euskaraldian parte hartu. Inguru erdaldunean etxean euskaraz hazi garelako gara gu euskaldun. Guk ez genuen aukeratu, gurasoak euskaldundu ziren eta hala egokitu zaigu. Askok eman digu euskarak, nortasuna, kultura eta gauzak ulertzeko ikuspegi propioa. Horrek ordea izan ditu bere kalteak: euskaraz egin dugu ahal izan dugun guztietan eta horren ondoriozko talkak gure azalean jasan ditugu txikitatik.

Ezagutza handitzearen ondorioz euskaraz egiteko aukerak zabaltu dira eta azken aldiko hizkuntz kanpainak erabileran jarri dute indarra. Tartean aditzera emanez euskaldungoak dugula euskara erabiltzearen ardura. Gauzak baina, ez dira hain erraz.

Gurean bere ohiko zirkuitutik kanpo euskaraz ariko denak bere egunerokoa betetzeko zailtasunak eta nahigabe sortutako egoera desatseginak biziko ditu. Aldizka bideratuko dizkiote erdaldunek bere traumak, oposizioena, Goierrin bizi zarela dioenarena eta abar.

Agian gure kanpainak erdaldunak liluratzera bideratu ditugulako isiltzen ditugu gure minak eta agertu nahi dugu beti jator

Nork entzuten ditu ordea gureak? Pandemiaren hasieran auzotarren laguntza sarean nirekin zebilen bizilagunak, beretzat euskara hemen ez dela existitzen esan zidan lotsarik gabe. Nola liteke elkarren ondoan bizi eta gu ez ikustea?

Agian gure kanpainak erdaldunak liluratzera bideratu ditugulako isiltzen ditugu gure minak eta agertu nahi dugu beti jator. Hizkuntza gutxitu batean bizitzea zer den ez dakienak or-

dea nekez ulertuko ditu gure sentipen eta beharrak. Bitxia da gainera feminismoa, LGTBI, Black Lives Matter eta beste hainbat zapalkuntza ikusarazten eta jendartean barneratzen ari diren uneen, euskaldunok zein mutu gauden jabetzea.

Hemen ez da inor euskararen aurka azaltzen, euskara baita hizkuntza zaharra eta ez dakit nongo altxorra. Egiten ditugu kanpainak eta Korrika datorenean betetzen ditugu kaleak, baina euskarak ez du erabilgarritasunik gure errealitatean. Ez dago administrazioaren inolako hizkuntz planteamendurik eskualde osoan. Gazteei eskolan aditz taulak eta gramatika erakusten dizkiegun arren ez diegu lurralde, kultura eta komunitatea ezagutzeko tresnarik ematen.

Badakit euskara indartzeko Euskaraldia baliagarri zaiola zenbait jenderi eta pozten naiz horretaz. Baina ni euskara errebindikatzear nekatuta nago, euskaraz osoki bizi ezingo garela jakinda ere, garen bezala onartuak izatea nahi nuke, ez besterik. ●



KANTU ESKUKADAK

100 euskal talde, 100 abesti, 100 ilustrazio
LIBURU BAKARREAN

25€



GAZTEZULOK bat egin du Olrait studioarekin ilustrazioen bidez euskal musika eszenaren aberastasuna aldarrikatzeko. Bilduma honek, garai ilun hauetan, argi aldarrikatu nahi du: Kultura segurua da!

Musika taldeen zerrenda:

- | | | | |
|------------------------------|-------------------------|-------------------------|----------------------|
| 1. Kuraia | 26. Leihotikan | 51. Zetak | 76. Petti |
| 2. Yaw | 27. Willis Drummond | 52. Gari | 77. Kai Nakai |
| 3. Berri Txarrak | 28. Joseba B. Lenoir | 53. Gabezia | 78. Anai |
| 4. Anari | 29. Madeleine | 54. Mikel Laboa | 79. Trini Fox |
| 5. Dut | 30. Hartz | 55. Gorpuzkingz | 80. Lukiek |
| 6. Anestesia | 31. Naizroxa | 56. 2Zio | 81. Gatibu |
| 7. Lisabö | 32. Arrotzak | 57. Doctor Desco | 82. Zaldibar Argitu! |
| 8. Izaki Gardenak | 33. Napoka Iria | 58. Bizardunak | 83. JP Lohian |
| 9. Rodeo | 34. Tutan Come On | 59. Joxe Ripiau | 84. Fiachras |
| 10. Xabi Bandini | 35. Kerobia | 60. Kokein | 85. Autobus Magikoa |
| 11. Belako | 36. Mice | 61. Gose | 86. Humus |
| 12. Eñaut Elorrieta | 37. Sarkor | 62. Eskean Kristö | 87. Ken Zazpi |
| 13. Izaro & Mikel Urdangarin | 38. Peiremans | 63. Horzdun | 88. Benito Lertxundi |
| 14. Fetitxe | 39. Pelax | 64. Aberch | 89. Joseba Irazoki |
| 15. Zea Mays | 40. Bananas | 65. Iker Lauroba | 90. Ro |
| 16. Katamalo | 41. Saia Goait | 66. Duluth | 91. Negu Gorriak |
| 17. Liher | 42. Skakeitan | 67. Trigger | 92. Pi L.T. |
| 18. Meltdown & Gartxot | 43. Revolta Permanent | 68. Odolkiak Ordainetan | 93. Ibil Bedi |
| 19. Olarz Salvador | 44. Etxekalte | 69. Bad Sound System | 94. Libe |
| 20. Urgatz | 45. Physis Versus Nomos | 70. Inoren Ero Ni | 95. Cobra |
| 21. Unidad Alavesa | 46. Glaukoma | 71. Sara Zozaya | 96. Ezinean |
| 22. Kraussk | 47. E.T.S | 72. Pantxo eta Peio | 97. Betimugan |
| 23. Habi | 48. Bi Bala | 73. Soziedad Alkoholika | 98. Bidelapurak |
| 24. Eneritz Furiak | 49. Keike | 74. Sua | 99. Txuma Murugarren |
| 25. Negen | 50. Montauk | 75. Deus ez | 100. Oskorri |

Analisia

5GAREN KONTRA NAGO

Bada, hara, 5G-aren aurka nago. Eta idazten dut jakinik oso konprometitua dela koronabirusaren garai hauetan horrelako baieztapenak egitea. Baina horrela da: 5G-aren aurka nago. Lau dira nagusiki 5G-aren kontra berba egiten dudak bakoitzean erabiltzen ditudan argumentuak: desazkundera, justizia soziala, konektibitate-arrakala eta pribatutasuna. Ikusten duzunez osasuna ez da argumentuetako bat. Ez. Ez dut uste erradiazio elektromagnetikoa etsai ikusezina denik. Hala ere, balizko aditu batzuek diotena irakurri izana aitortzen dut.

 **DABID MARTINEZ***

DESAZKUNDEA, EZINBESTEAN

Bistan da mundu honek ezin duela jasanez etengabe hazten ari den hazkunde ekonomikoa. Ezta teknologikoa ere. Bistan da bi horien ondorioz planeta txikitzen ari garela. Nik ere uste dut hemendik gutxira kolapso baten aurrean aurkituko garela, eta kolapso hori ez dela bakarrik ekologikoa izango. Baina ekologikoa ere izango da. Eta sentitzen dut, baina oso sinplea da: ezin dugu maila teknologiko honetan hazten jarraitu. Hozkailuan esnea daukagun jakiteko planeta madarikatua puskatzen ari garela, baita planetako biztanle asko kaltetzen ere.

5G-aren arazo handienetako bat antenen biderketa nabarmena da. Ez da ingeniaria izan behar ohartzeko 5G-ak eskaintzen digun konektibitate eta exekuzio azkarrek antena gehiago ezartzea eskatzen duela. Ez zait irrealia iruditzen gaineratzea zenbat eta handiagoa izan banda-zabalera, orduan eta handiagoa izango dela banda-eskaera. Zuntz optikoaren bilakaera eta erabilera ikustea baino ez daukazu: Netflix, HBO, Disney+... Deitu nahi duzun bezala. Gauza bera gertatzen da gaur egun 5G-arekin. Teknologia honen hedapena oso kaltegarria da ekologiarentzat, kontuan hartzen baditugu ehunka milioi ante-

na eraikitzeko behar diren materialen kopuru astronomikoak. Eta, batez ere, garatuko ditugun eta gure bizitzetan sartuko ditugun milaka milioi objektu konektatuak sortzeko materiala. 5G sareak gailu horiek guztiak konektatzeko aukera hutsa eskaintzen digulako. Behar ditugun edo ez, bigarren mailakoa da.

5G-ak behar duen garapen maila horrek etsai ikusezin gisa izendatu nahi dudana dakar: baliabide ez-berriztagarrien eta erregai fosilen agortzea.

Marketinak engainatu ohi gaituen arren, maila kritikoan teknologia gutxitzearen alde egiten dugunontzat, barba-



ria da 5G-aren hedapenean pentsatzea. Faraonikoa. Horri buruz hitz egite hut-
tsak gehiegizko kontsumoaren neurri-
gabeko karbono-azterna sumatzen uz-
ten digu. Izenik gabeko astakeria.

Joseba Azkarraga Etxagibel irakas-
leak bere artikuluan (*Berria* egunka-
rian: *Digital eta ekologiko, oximoron
berria*) adierazten duenez, une teknolo-
giko hau ez bada jasagarria... Zer pen-
tsatu behar dugu 5G-arekin datorrenaz?
Kropotkin-ek esaten zuen ezinezkoa zi-
tzaiola kalkulatzeko ogiaren prezioa (Wi-
kipedian: *La Conquête du pain*). Orain
oso argi irudikatzen dut nire buruan
bere argumentazioa.

* **Dabid Martinez**

Hack.in#badakigu
informatika elkarte
askeko kidea da, baita
hacktibista/aktibista ere.

Eduki hau ARGIA duen
Leihotik ihesi blogean
argitaratu du aurrez, lau
ataletan banatuta:

**[www.argia.eus/blogak/
dabid-martinez](http://www.argia.eus/blogak/dabid-martinez)**

EZ DU LAGUNDUKO JUSTIZIA SOZIALAREN BIDEAN

Hemendik aurrera oso gordina izango
naiz. Agian norbaitek pentsatuko du po-
pulista ere banaizela. Baina krudelagoa
da sistema ekonomiko hiltzaile hau.

Zure mugikor berrian pertsonen
odola dago. Zaharrean ere bazegoen.
Baita nirean ere. Izerdia eta malkoak
ere badaude. Telefono mugikor bat
erosten dugun bakoitzean, esklabotza
sustatzen ari gara kolapso bidean edo
kolapsoan dauden zenbait herrialde-
tan. Honek zure ordenagailurako eta
zure jarduera-eskumuturrekoetarako
ere balio du.



Gailu guzti hauek gauza asko ezkutatzten dizkizute.

Bakerantz zenbait aurrerapen egin diren arren, munduan, komunitate askotan oraindik ere talde armatuak daude, sexu-esplotazioa, lan behartuak eta pertsonen trafikoa sustatzen jarraitzeko asmoz sortuak. Bazenekien lotura zuzen-zuzena dagoela indarkeria horren guztiaren eta zure etxearen artean? Urrea eta koltana. Beti eskura duzun gailu batean dauden bi mineral: zure telefono mugikorra.

Urrea, adibidez, zure telefono mugikorreko mikrotxipak lotzen dituzten zirkuitu inprimatueta erabiltzen da. Kolonbiako urre ustiapenaren %80 legez kanpokoa edo kontrolik gabekoa dela uste da. Besteak beste, esklabotza, pertsonen kontrabandoa eta kapitalak zuritzea dakar.

Koltanari dagokionez, Kongoko Errepublikak Demokratikoa munduko meatze gunerik garrantzitsuenetako bat dela azpimarratu behar da. Han dago munduko koltan erreserben gehiengoa; mineral hori gabe, teknologia berrien iraultza, bereziki teknologia mugikorrarena, ezinezkoa izango

litzateke. Kongoko koltana ustiatzeko asmoz sortutako gerra infernuri oke-rena bihurtu da hasi zenetik.

Urrea eta koltana mineral urriak eta garestiak dira. Gatazkan dauden mineralak. Beste mineral asko ere egoera berean daude, wolframa eta eztainua

Agian, aukera
berdintasunaren
mesedetan,
20 MB-tan geratu
behar dugu guztiok,
edo 3 MB-tan

kasu. Mineral hauek guztiak ezinbestekoak dira gure gizartean 5G teknologia ezarrita dagoenean aldatu beharko ditugun 5G telefono berri guzti-guztiak sortzeko. Gainera, badakizu non amaituko duen bere bizitza zure telefono

zaharrak? Horixe ba! Ia-ia herrialde berberetan (Zientzia kaiera: *Gailu elektronikoen bizi luzea*). Baina antenen parte ere badira mineralok, eta baita antena horietara konektatuko ditugun jarduera-eskumuturrekoen parte ere. Zentzugabekeria da. Badakit marketinak oso zail jarriko didala, baina oraingoz, erosketa hori saihestea gustatuko litzaidake.

Kongoko indarkeriaren erantzuleak gara. Gauza bera Kolonbian. Eta, aipatu ez badut ere, gauza bere Txinako Jieyang hirian. Beste hamaikatzokitan ere bai. Gutxienez maila handi batean, lehen hiru kasuetan. Hori da desazkunde teknologikoa defendatzeko beste arrazoietako bat. Hain zuzen ere, G5-ak proposatzen digunaren guztiz kontrako norantzan.

Bi gomendio egin nahi dizkizuet atal hau bukatzeko. Alde batetik, zuen telefonoak zer ezkutatzten duen ulertzea (www.tecnologialibredeconflicto.org/eu/), eta bestetik, teknologia horiek behar duten mihiztaduran ematen diren lan baldintzen inguruan Xu Lizhi-ren poema sorta irakurtzea (www.ikusimakusi.eus/etiketa/xu-lizhi/).





Milaka pertsona hilko dira guk banda-zabalera handiagoa izan dezagun. Ondoren ikusiko dugunez, behar ez dugun banda-zabalera.

KONEKTIBITATE-ARRAKALA HANDITUKO DA

Hasiko naiz esaten zati hau dela argumentatzea gehien kostatu zaidana. Hala ere, uste dut nahikoa duin geratuko dela aukera bat emateko. Sareko abiadurei eta Interneterako sarbideari buruz hitz egin behar dugu.

Indartsu nabil: munduko biztanleria-erdiak baino gehiagok ez du Interneterako sarbiderik.

Gizarte gisa, erritmo bizian goaz 5G teknologia eskaintzen dizkigun abiadura infinituetara. Bakarrik dabilela uste duenaren segurtasun eta osotasun moralarekin ekin diogu gainera bidetari. Hala ere, bidetari ekin dioten gutxiak eiz dakite, gaur egun ere, jende askok ez dutela Interneterako sarbiderik izateko aukerarik. Zero megabit.

Bi egoera bururatzen zaizkit, norbaitek Internet ez edukitzeko. Lehenik eta behin, bizi den lekura ez iristea. Bigarrena, kontratazioa egiteko behar den dirua ezin eskuratzea. Kontuan hartuta Internet eskubidea izan beharko lukeela, eta sekula ez pribilegio bat, iruditzen zait bi aukera hauek termino politikoetan konpon daitezkeela. Bihar barik. Gaur. Izan ere, alderdi teknikoak erreparatuz ez du inolako arazorik suposatzen.

Lehenxeago egin dudaren kontra, ez dut garatze bidean eiz dauden herrial-

deetara joan beharrik esateko pertsona askok ez dutela Internet kontratatze-ko aukerarik. Gogoan dut hirigunetik aparte zegoen baserri batean bizi zenari Telefonikak erantzun ziona: "Ezin dizugu Internet jarri, ez digu merezi linea bakarra jartzeak". Guifi.net-en kolaboratzen ari nintzela, nik burutu nuen deia. Bizi gaituen sistema madarikatuak ez ditu inoiz pertsonak lehenetsi, ezta teknologiaren kasuan ere. Guifi.net teknologia erabiliz, Telefonikaren ezetzari aurre egin genion. Bada, lau hippyk estaldura ematen badiote estaldurarik ez duen eremu bati, nola ezingo du multinazional batek gauza bera egin?

Telefono mugikor bat erosten dugun bakoitzean, esklabotasun egoera sustatzen ari gara kolapso bidean edo kolapsoan dauden zenbait herrialdetan

Ni bezain ondo dakizu erantzuna: Ikuspuntu ekonomikoari baino ez diolako erreparatzen.

Internet kontratatu arren, pertsona



MARCOS
okindegia

**Benetako
antzinako ogia**

© 943 450 966
Ubarburu pasealekua, 113
Astigarraga (Gipuzkoa)

INAKIBEREZIARTUA

ENBALAJEAK
BILTEGIRATZEA ETA LOGISTIKA
ZERRA ETA ERAIKUNTZA

25 urte baino gehiago paketatze industrialaren sektorean

Jauregi auzoa, 75
Hernani (Gipuzkoa)
© 943 552 828
www.inakibereziartua.com
mjm@inakibereziartua.com

askok abiadura txikia baino ezin dute kontratatu (nik neuk, duela hiru astera arte 3 MB nituen). Pertsona horiek beren 3 MB garestia ordaindu dituzte, ekonomikoki, hiriburuan kontrata ditzakezun 600 MBak baino.

Badakizue? Nire ustez, lehenik eta behin Internet, gaur egun, eskubide unibertsal bihurtu beharko genuke. Gauden egoeran, argindarra ere bai, bide batez.

Laburbilduz: pertsona eta eremu guztien aukera-berdintasuna bermatu behar da arrakala teknologikoa handitu baino egingo ez duen beste zera batekin hasi baino lehen. Orduan konturatuko garelako agian ezin dugula 600 MB edozein lekura eraman eta abiaduran ere desazkundera sustatu behar dugula. Agian, aukera berdintasunaren mesedetan, 20 MBtan geratu behar dugu guztiok, edo 3 MBtan.

Konektibitate-arrakala hau konpondu ondoren, jarraitu genezake gutariko gehienak inora ez garamatzan 5G-a ezartzen.

Euskotren gure auzotik pasatzea behar dugulako. Ez AHT.

ARE PRIBATUTASUN GUTXIAGO

Azken ohar gisa, Interneten ez dago pribatutasunik. Ez bilatu. Ez duzu aurkituko.

Nabigatzen dugunean uzten ditugun arrastoak hobeto edo okerrago ezkutatze moduak aurki ditzakezu. Baina sekula ez erabateko pribatutasuna. Adibidez, zure Interneteko hornitzaileak aukera dauka (eta legezko betekizuna) bere datu-basean bisitatu dituzun webgune guztiak zerrendatzeko. Zerrenda hori hobeto edo okerrago ezkuta dezakezu Tor teknologia erabiliz. Konexio denborak, adibide bat jartzeagatik, ezin izango dituzu ezkutatu Tor teknologia erabilita ere.

Gaur egun nola zelatatu zaitzaketen erakusten duen adibide bat besterik ez da. Baina 5G-arekin maxifikatu egiten dira espioitza aukerak.

Kalkuluen arabera, 2025ean 21.500 milioi gailu egongo dira Internetera konektatuta. Gailu horiek zure bizitza pertsonalari buruzko informazio ikaragarria dute. Lehengo adibidearekin jarraituz, zure web zerrenda eta nabigazioa, baina baita zure mezuak, zure datu "medikoak" (erloju adimendunaren kasuan) edo zure kontaktu agenda osoa ere. Interneten zirkulatuko du-



ten datuen gorakadak pertsonak modu zehatzagoan indibidualizatzeko aukera emango du. Honek, fabrikatzaileei, erabiltzaileen profil indibidualizatuak sortzeko aukera ematen die eta, era berean, algoritmoek, profil horiek erabilita, erabiltzaileak hartu beharko

Maila kritikoan
teknologia
gutxitzearen alde
egiten dugunontzat,
barbaria da
5G-aren hedapenean
pentsatzea,
faraonikoa

lituzkeen erabakiak hartzeko aukera. Zergatik? Aspaldian adimen artifizialak gu baino adimentsuagoak, edo, direla sinetsita gaudelako. Tekno-sineskeria ere dogma moderno bat da. Beste edozein erlijio bezain kaltegarria. Datu demasa honi dagokionez, ezinbeste-

koa da aipatzea agente gehiagok eskura ditzaketela gure datuak, beraz zailagoa izango da datu horien kudeaketa, adibidez, ezabatzeko eskatzea (fabrikatzaileak, zerbitzu-hornitzaileak, tarteko agentziak, eta abar). Eta, jakina, eraso informatikoak jasateko aukera areagotzen du.

Dakizuen bezala, informazioa boterea delako. Eta dirua. Dirutza ikaragarria.

Jar dezagun beste adibide sinple bat, azalpenik behar ez duen horietakoa: oinarrizko estazio eta antena gehiago erabiltzeak eta distantzia txikiagora egoiteak erabiltzailearen geolokalizazioa askoz zehatzagoa izatea ahalbidetzen du. Gaur-gaurkoz, geolokalizazioak oso metro gutxiko errore-tartea dauka.

Bada, orain imajinatu indarkeria jasotzen duen pertsona bat zarela.

Hiru adibide baino ez dira. Baina kontuan izan, zerrendatu ditzakedan arazo berri guztiez gain, 5G teknologia egungo pribatutasun arazoak heredatzen dituela (Larrun 254: *Autodefentsa digitala*). Bai maila teknikoan, zein maila etikoan edo politikoan.

Espero dut gutako bakoitzaren datuen kontrol galera nabarmen honek ez gaituela mundu literario batera eramango, non kontakizun gehienak erabat distopikoak diren.

Irakurri Aldous Huxley-ren famatuenena. ●

Hik Hasiren liburu berria



Natura, askotariko materialak, sormena, ikerketa, jolasa... eskuak, hankak eta burua mugiarazten dituzten ideiak eta proposamenak

Salgai **www.hikhasi.eus**-en
Esperimentazioan sakonduz biziberritu

“Mundu mailako konkurrentziari ateak irekitzen dizkio telelanak”

FANNY LEDERLIN
FILOSOFOA

Nola ez, telelanaz hitz egin dugu Fanny Lederlin filosofoarekin. Lanaren esparruak azken urteetan ezagutu mutazioei begira jarri eta hauek dakartzaten arriskuei buruz ari da *Les dépossédés de l'open space*. *Une critique écologique du travail* (“Open space-etako desjabetuak. Lanaren kritika ekologiko bat”) liburuan. Gaur egungo erronka langileen eskubideen alorra baino zabalagoa dela dio: lana geroz eta atomizatuagoa eta indibidualizatuagoa dugu eta horri buelta eman behar zaio.

 JENOFA BERTHOKOIRIGOIN

Anitz gara telelanean murgildurik. Hauturik ukan gabe horretara bideratu gara, COVID-19 izurritea dela eta. Lan antolaketa berri hau geratzeko etorri zaigu?

Uste dut baietz, eta hori arrazoi askorengatik. Hasteko, orokorrean langileek horrekin segitu nahi dutelako, denbora osoz ez bada ere. Lehen konfinamenduan Frantzian egindako inkestek hori azaleratzen dute –alta, baldintza txarretan bideratua izan zen, gehienik emakumeen bizkar den zaintza gehitu behar zitzaion telelanari–. Hala eta guztiz ere, enpresek aitortu beharreko eskubide gisa ikusten dute askok, eta sindikatuak ere zentzu horretan dabilta gogoetan.

Dena ez duelako txarra, agian.

Etekin indibidualak baditu eta horiei begira daude. Baina maila kolektiboan on-

dorio larriak eta kezagarriak ditu telelanak. Hasteko, langileak elkarrengandik urruntzen ditu. Bideokonferentzia bidezko bilerak ez dira nahiko elkartzuna bermatzeko edota hasi berriari laguntzeko –une informaletan agertzen diren trukaketen garrantzia ahortzi gabe–. Bestetik, lana eta lanik ezaren arteko muga ez dugu gehiago argiki finkaturik. Erne egon behar garela uste dut. Espero dut sindikatuek begirada ez bakarrik lan baldintzei mugatzea eta arazoari modu zabalagoan begiratzea. Ondoko galdera mahai gainean jarri behar lukete: zer nolako harremanak nahi ditugu –norberak bere buruarekiko, ingurukoekiko baita munduarekiko ere–?

Gainera, interneteko jabe handiak aberasten ditugu, hauen artean GAFAM boskotea –Google, Amazon,

Facebook, Apple eta Microsoft–. Behintzat gutxiengo betebeharratzuk exijitu beharko dizkiegu, ez? Demagun, zerga ihesarekin bukatzea. Borroka erabat politikoa da. GAFAM boskoteak nazioarteko eta tokian tokiko legeak errespetatu behar lituzke. Ez da kasualitatea Twitter eta Facebookek telelana orokortuko zutela jakinaraztea konfinamendua hasi eta berehala. Zer erran nahi du? *Dumping sozial* berri baten aurrean gaude. Industriako multinazionalen eskubide sozial gutxiagoko eta soldata apalagoko herrietara deslokalizatu zituzten lantegiak eta hor gauza bera da baina burumuinekin. Facebookek Indian enplegatzen ahalko du gaitasun handiko langilea, baina Kalifornian baino soldata askoz apalagoarekin. Horregatik bi aldiz pentsatu behar dugu telelana positiboa dela erran ai-



tzin. Mundu mailako konkurrentziari atea irekitzen dio telelanak.

Telelanerako tresna alternatiborik badea?

Ez dut erantzunik. Baina gaur egun ez badira, bihar izanen dira. Banaketak segurtatzeko, soldata duinak segurtatzen dabiltzan kooperatiba batzuk sortu ziren bezala, telelanean ere loratuko dira alternatibak. Arazoa da gutxiengoan izanen direla, GAFAMaren indarra ikaragarria delako. Baina indar harremana desorekatua izateak ez du erran nahi entseatu behar ez denik.

Instagramen jarritako argazkia, gauean Netflixen begiratu seriea, mendi ibilaldirako pizturiko GPSa... guzti hori lana dela diozu.

Antonio Casillik idatzitako *En attendant les robots* liburuan "klik-lana" hiru multzo handitan banatzen du: plataformek bideratu zerbitzuak –adibidez Uber-eko gidaria–; mikrolana edo etxetik *on line* eta klik bidez buruturikoa –Amazon Mechanical Turk gisakoentzat–; eta interneteko garbitzaileak, hilketa ala indarkeria irudiak identifikatzen eta eza-batzen dabiltzanak –ezinbestekoak eta aldi berean lan erabat apalgarrian dabiltzanak–. Aipatu plataforma horiek gure beharra dute –kontsumitzaile gisa, baita ekoizle moduan ere–. Twitter, Instagram zein Facebooken zeozer publikatzen dugun aldi oro plataforma hauentzako lanean gabiltza musu-truk. "Kontsu-ekoizle" nozioa erabiltzen dut. Ordainketarik ez diegu galdetzen, ikusia izateak eta gurea partekatua izateak bozkarioa eragiten digulako. Kaltegarria eta biziotsua ere da, kitorik lan egitera ohitzen garela eta gainera, lanaren izaera ikusezine-ra ohitzen garela.

Denboraren pertzepzioa ere aldatuz doa. Abiadura handian doa dena.

Biziki hurbil ala une berean ditugu ekoizpena eta kontsumoa eta horrek lanaz gain, bizia ere kaltetzen digu. Esfera pribatuaren eta profesionalaren arteko ezberdintze-ezan gaude, geroz eta lau-soagoa da bien arteko muga –telelana-rekin argiki ikusten dugu–. Arriskua da lanak geroz eta leku gehiago hartzea, eta gainera, erran dugun bezala, geroz eta ikusezinagoa bilakatzea.

Neoliberalismoaren noziotik abiatuturik, "neolana" neologismoa plazaratzen zabilta.



Kapitalismoaren gaur egungo forma dugu neoliberalismoa; liberalismoari alderatuz Estatuak funtzio oso inportantea du, ez gara Adam Smithen *esku ikusezina*-rekin. Aldaketa teknologiko esponentzial batean gaude ere. Kapitalismoaren historian beti egon dira aldaketa teknologikoak, baina 1950eko hamarkadaz geroztik abiadura ikaragarri handian emanak dira. Hiru aldaketa nabarmendu ditzazkegu: robotizazioa, aro numerikoa eta algoritmoak. Lanaren alorrean mutazio handiak ondorioztatzen dituzte, neolana nozioarekin izendatzen ditudanak. Argiki, lanarekiko dugun harremanaren degradazio batean gara.

Zer nolako degradazioa?

Lanaren indibidualizazioan gaude. Danièle Linhartek *Travailler sans les autres?* liburuan ongi azaltzen digu laneko kolektiboen hausteko helburua argiki finkatzen eta teorizatzen dutela 1980ko eta 1990eko hamarkadetatik goiti. Soldatak zein karrerak geroz eta indibidualizatuagoak dira eta langileen arteko konkurrentzia barneratu dugu. Hori horrela, kolektiboa desagertuz doa eta borroka sozialak berriz ahuldut. Lanbide independenteak edo autonomoak biderkatu dira, ez dira gehiago marjinalak. Indepen-

“Twitter, Instagram zein Facebooken zeozer publikatzen dugun aldi oro plataforma hauentzat musu-truk lanean gabiltza”

dentziaren erretorikak erakartzen ditu gazteak. Errealitate hau ere kontutan hartu behar dugu: marko berri batzuk asmatu beharko ditugu, nahi duten malgutasuna eskaintzerakoan hainbat eskubide bermatzeko.

Independentziaren ideia hori perbertsoa izan daiteke.

Bistan da. Patronalaren nahikari eta ideologia bat dago gibelean eta guk iruditegi hau barneratzea dute xede. Ez dugu bistatik galdu behar independentziaren ideiak berarekin dakarrela babes eta eskubideen desagertpena. Noski, nagusirik ez duzu, ordutegia antolatuta dezakezu... hein batean egia da, baina ez osoki. Adibidez, digital-langi-

leek ez dute nagusirik, baina algoritmoek bideratu manuen menpe dira.

Azpiktratatzeen garapena ere aipatzen duzu mutazio gisa.

Lanaren dualismo berri batean gaude: errentagarriak ez diren aktibitateak azpiktratatzen gabilta. Zein dira? Garbiketa, atezaindegia, informatika zerbitzuak... hots, ezinbestekoak izanda ere errentagarriak ez direnak. Alde batetik, lan ofiziala, probetxuzkoa dugu; eta bestetik, azpilana, gaizki pagatua, usu emakumeek eta arrazializatuak segurtatua, eta ikusezina ere dena –goizean goiz ala gauez datoz lantegira, inork inoiz gurutatu gabe–. Gainera, azpiktratatzaileek prezioak ahal bezainbat apaltzen dituzte konkurrentziari aurre egiteko eta lan baldintza oso txarretan dabilta lanean. Bi abiaduratako lan hau ez da ja-sangarria, are gehiago bizitzaren artaren ardura dutelako.

Baina lan esparru honen prekarizazioa eta esplotazioa ez da gauza berria...

Egia da zaintzaren sektorea estrukturaliki gutxietsia izatearena ez dela gauza berria. Kontua da, orain, beste batzuen esku uzten dituztela, horrela etekinak emendatuz. Lanbide horietara bideratu mespretxu soziala ez da berria, baina berritasuna da estrukturaliki saihesturik izatea.

Neolanak bere baitan daukan muturreko destajuko lana ere deitoratzen duzu, frantsesez *tâcheronnisation* izendaturikoa, “muturreko peoi-lana”.

Kapitalismoaren muinean dugu lanaren zatiketa, oso produktiboa dena. Baina erreforma sozial handiei esker baita Nazioarteko Lan Erakundearen 1944ko Filadelfiako Adierazpenarekin ere ia desagerturik genuen, Mendebaldeko herrietan behintzat. Baina *freelance* langileekin, lanaren digitalizazioarekin eta plataformen garapenarekin berriro hor dugu emaitzen araberako soldatarrena, lan horretan emandako denbora edozein dela eta. *Klik-langile* ala peoiei dagokionez, exekutazaila izatera mugatuak dira, ez zaie inolako gaitasunik galdetzen eta ordezkagarri dira. Erabat alienagarria da muturrera eramandako destajuko lan hau.

Peoi hauek “klaserik gabeko proletarioak” direla diozu.

Neolanaren esparrua erabat indibidualizaturik da, eta jendartean gauzaturiko atomizazio soziala ere hor dago. XIX. eta XX. mendeetan klaseak argi ziren: burgesiarena eta langileriarena. Uste dut burgesia-klasea hor dugula oraindik, elkarrekiko elkartasun handiz daukan pribilegioak defenditzen dabilena; eta langileria-klasea desagertuz doala, behintzat Mendebaldean, erdi mailako klasea deitu ohi dugun klase zabalago baten barne dugu orain. Erdi mailako klase hau ez da baitezpada borrokalaria, klase-sentimentua ez du baitezpada garatua eta alta, egoera okertzen ari zaio: langabeziaren presioaz gain, muturreko destajuko lanak egoera are gogorragoa bihurtzen du.

“Lanaren indibidualizazioan gaude, kolektiboa ahulduz doa eta borroka sozialak ere”

Izpiritu kritikoaren eta desobeditzearen garrantzia aipatzen duzu liburuan, neolanean autoritarismoaren mekanismo batzuk ere ikusten dituzulako.

Badakit ez dela erraza, Uber-eko gidariak ala Amazoneko banatzaileak premia finantziarioak dituelako. Baina uste dut zinez premiatsua dela.

Klaserik gabeko proletarioei gehiturik konturatu gabe eta kitorik lanean gabilta internet erabiltzaileok... Panorama honetan ez dugu ttipia langileon eskubideen aldeko erronka...

Eskubideen esparrua biziki inportantea dugu. Lan zuzenbideari buruz gogotatzerakoan ez dugu soilik iraganean pausatutako kuadroetan oinarritu behar. Beharrezkoa da Uber-en abusuen aurka borrokatzea, soldatapeko lana izan beharrean lanbide autonomo gisa saltzen digulako asuntza... baina horrela ez diegu gaur egungo erronka guztiei erantzuten. Egoerari beste begirada bat gehitu behar zaio. Asko entzuten da lana ez litzatekela soilik ogibide izan behar eta ongi-izatearen hornitzaile ere behar

lukeela. Uste dut helburu horiekin neoliberalismoaren ikuspegian kokatzen gara, arazoa pertsonalizatzen eta indibidualizatzen dugulako. Haratago joan eta besteekilako eta munduarekilako harreman-toki gisa definitu behar dugu lana. Hori horrela, begibistakoa gelditzen zaigu azken aldi hauetako lanaren indibidualizazioaren larritasuna. Sozializazio gune izan ohi da lana, elkartasunak garatzeko gune ere izan da. Autoestimuan ere eragina du lanak... baina pentsa nola-ko eragina duen peoitza aritzeak...

Geroz eta indibidualistagoak gara.

Nola egin testuinguru honetan aldarri hau ez zaharkiturik agertzeko?

Galdera ona da, balio digulako teoriara mugatzeko arriskuaz jabetzeko. Egia da jendarte indibidualista batean gaudela, eta ez dagoela atzera bueltarik –jakinik alde onak ere dituela horrek, inork ez lukeelako itzuli nahi jabe ala familia baten ondasun ginen iraganera–. Indibidualizazioak askatasun liberalarekin errimatzen du, norberaren adimendua, kontzientzia eta askatasuna dira lehenesten. Hori hobekuntza bat da, duda gabe. Baina aldi berean uste dut jendarte atomizatu hau ez dela ona. Lehenik eta behin, helburu komunik, batasun sozialik eta elkartasunik ez gehiago ukatea indarkeriarentzako lurbeltza delako. Nola segurtatzen ditugu biak –norberaren askatasuna eta elkartasuna–? Hau dugu gaur egungo erronka. Inozoaren itxura ukan dezake, baina uste dut pasatzen dela senidetasunaren berdefinitziotik.

Anartean, osoki ez bada ere, behintzat doi bat deskonektatu behar genuke, ez?

Seguraski, baina norberaren diziiplina hau biziki zaila da, guztia egin delako hori saihesteko: konexioa plazer eta atsegin iturri dugu. Guzti hau politikoa den heinean garaipen politikoak behar-ko ditugu, eta horretarako kontzientzia hartze politikoa bat ezinbestekoa dugu –bai indibiduala, bai kolektiboa–. Horrez gain, etika bat ere beharrezkoa dugu, langile gisa “manu hau betetzen dut ala desobeditzen dut?” galderak hor egon behar luke. Etika hau numerikoaren kontsumitzaile gisa ere beharko dugu bideratu. Bien arteko artikulaziotik etorriko dira hobekuntzak: ezin da soilik langile eta kontsumitzaileoi eskatu jarrreren aldaketa, eta ezin da politikaren esku utzi guztia. Klima larrialdiaren alorean bezala, funtsean. ●

Seke hizkuntza azken arnasgunea Brooklynen

Seke Nepalgo Mustang eskualdeko hizkuntzetako bat da eta, egun, 700 bat hiztun baino ez ditu. Irizpide guztien arabera, desagertzeko arrisku larrian dago baina azkenengo urteetan AEBetako New Yorkeko eraikin batean seke bizirik mantentzeko ahaleginetan ari dira.

 ANDER LEON

Mustang, Nepalgo iparraldean dagoen erresuma zaharra, Himalaya zeharkatzeko “4.660 metro baino ez dituen” Kora La pasabidea aprobetxatuz, historikoki Tibet eta Indiaren arteko merkataritzarako igarobidea izan da. Erresuma honen historiak kondairak eta benetako gertaerak txandakatzen ditu. Sorrera 1380an monje budista batek hil zuen deabruaren bihotz eta erraietan oinarritzen da eta Tibetekin lotura sendoak izan bazituen ere, mendeetan zehar erreinu independente bezala funtzionatu zuen. 1795ean, Nepalek bertako lurak anexionatu zituenean, burujabetasuna galdu zuen, Mustango erregeak hainbat botere mantendu bazituen ere. Zonaldeko azken aldaketa politikoen harira, 2008an, Nepal osoa errepublika bihurtutakoan, erregeak bere koroa eta eskumenak galdu zituen.

Mustang isolatuaren barruan badago isolatuago dagoen eskualdea, Goi Mustang du izena. Han ez da inoiz ezer gertatzen, beno, noizbait bai, adibidez, pasa

den mendeko 60ko hamarkadan planetako geopolitikako gune garrantzitsua bihurtu zen CIAk babestutako Tibeteko gerrillarien basea bihurtu zenean, Txina komunistak burututako okupazioaren kontra borrokatzeko. Urte batzuk geroago AEBetako presidentek, Richard Nixonek, Txina bisitatu zuen eta opari bezala gerrilla hauek desegin zituen. Eskualdeko Gerra Hotza epeldu zen. Gertaera horietatik bost hamarkada pasata, Goi Mustangen beste epeltze mota batek eragina izan du, klimarenak. Uztak gero eta urriagoak dira eta biztanle askorentzat emigrazioa da bide bakarra.

ELKAR ULERTZEKO ZAILTASUNAK DITUZTE

Emigratzen dutenen edo hala egitea bururatzen zaien artean Chuksang, Chaile, Gyakar, Tangbe eta Tetang herrietako biztanleak daude, seke hizkuntzaren erabiltzaileak, hain zuzen ere. Sekek “urrezko hizkuntza” esan nahi du eta sino-tibetar familiako tamangic adarrean kokatu ohi da. Idatzi gabeko hiz-

kuntza da, inongo tradizio literariorik gabekoa. Zenbaki baikorrenen arabera 700 hiztun baino ez izatea, hiru dialekto ezberdintzea eta elkar ulertzeko zailtasunak edukitzea dira hizkuntza honen ezaugarri nagusiak. Zaharren arteko komunikaziorako geratu da, gazteek nepalera lehenesten dute, bai eskolan jasotzen dutelako baita lan aukerak zabaltzen dituelako ere. Bigarren hizkuntza aukeratzeko garaian, ingelesaren edo hindiaren aldeko apustuak izaten dira nagusi. Ohikoak dira Pokhara edo Kathmandu bezalako hirietara ikasteko edo lan egiteko migrazioak eta horrelako egoeratan seke lehenaldiko oroimena baino ez da izaten. Munduan bi astero hizkuntza bat desagertzen dela kontuan hartuta, seke zerrenda horretan laster egongo dela pentsatzea ez litzateke erokeria izango.

Hizkuntzaren biziraupenari buruz ari bagara, migrazio masiboa berri txarra izaten da, baina noizean behin, ezusteko historia atseginak azaleratzen dira, eta sekerena horietako bat da. Endangered Language Alliance (ELA, euskaraz arriskuan dauden hizkuntzen arteko elkartasuna esan nahi du) elkartearen zenbakietan New Yorkeko kale eta etxeetan 637 hizkuntza hitz egiten dira. Brooklyn auzoan, Ditmas Park barrutia dago eta bertan, 100 bat sekedun bizi dira, haietako 50 eraikin berean. Gehienak nekazariak edo abeltzainak ziren Goi Mustangen, Ipar Amerikan ordean, manikuragileak, eraikuntzako langileak edo sukaldariak izaten dira. Beraien apartamentuak Nepalgo oroigarri bezala daude. Hormen inguruan alfonbraz estalitako egurrezko bankuak ikus daitezke eta hormetan jatorrizko etxeko tresnak edo Dalai Lamaren argazkiak. Usainak ere bereziak izaten dira: espezienak, intsentsuenak eta tearenak nahasten dira eta *momo* da Ameriketara eraman duten jaki tradizionala, jai egunetan prestatzen dutena. Plasmako telebista erraldoia Mendebaldeko modernitateari emandako kontsezio baka-rrenetakoa da.

Giro honetan, sekeren arnaguneak sortu dute, ia nahi gabe, ia konturatu gabe. Beraien herrietan ez zen erraza aurrez aurreko komunikazioa, egunak behar baitira herri batetik bestera joateko eta zaila izaten da solaskideak topatzea. Brooklynen, beraien hizkuntzan aritu ahal izateko hamar segundutako iogailu bidaia baino ez dute behar.



Seke hiztunak New Yorkeko Brooklyn auzoan, familiako urtebetetze bat ospatzen.

EZ DUTE DENEK GALDU ITXAROPENA

Berpizkunde testuinguru honen ardura-dun nagusietakoa Rasmina Gurung da, 22 urteko erizaina eta bere hitzetan seke hiztun aktiboetatik gazteena. Gogoz hartu du bere hizkuntzaren biziraupenaren ardura, baina alarma, haserre, tristura eta etsipenaren arteko sentsazioa izan ohi du.

Auzoa aldatu dela dio, garai batean komunitate etniko edo kulturalak itxiak ziren. Zaila zen, muturreko adibidea jaritzearren, italiar katoliko eta irlandar katolikoen arteko ezkontza bat gertatzea. Gaur egun nahasketa handiagoa da, eta horrek alde positibo asko ditu, baina sekeren etorkizunerako ez da berri ona.

Ditmas Parkeko eraikinean Goi Mustangeko bost herritako biztanleak bizi direnez, zaila da dialektoen arteko elkar ulertzea, batzuek tangbez hitz egiten dute, beste batzuek tetangez eta gainontzekoek chuksangez. Komunikazioa hobetzeko seke batuera ere sortu dute, era bakoitzeko hitz esan-guratsuak erabiliz. Arestian aipatu bezala, idatzi gabeko hizkuntza da, eta zailtasun hori gainditzeko laguntzeko Rasmina Gurung, ELAren laguntzaz, seke-ingelesa hiztegia ari da sortzen azken hilabete hauetan. Hitzak transkribatzeko, adibidez, alfabeto latinoan erabiltzen du, eta soinu asko adierazteko garaian ez du egokiena aurkitzen. Hitz abstraktoak itzultzean ere ziurtasun falta adierazten du, esate baterako,

arima hitza ez baita gauza bera Nepalgo kulturen edo anglosaxoian.

Bideo grabazioak ere jasotzen ari da, eta YouTube bezalako kanalen bidez zabaltu, baina denboraren kontrako borrokan dabilen errezeloa du, agonia luzatuko dutela, besterik ez. Arbasoen laguntza handia du, baina ondorengoek bere esfortzuaren emaitza preziatuko duten zalantza egiten du Gurungek. Gazteek ingelesez ikasi eta lan egiten dute, ingelesez bizi dira, eta ondoren gaztele- ra edo mandarin txinera menperatzen saiatzen dira, beraien bizimodua edo lan aukerak hobetzeko baliogarriak izango direlakoan. Seke, Goi Mustango mendiak bezala, urrutiegi geratzen zaie.

ELAren irizpideetan, hizkuntza galtzeko arriskua 10.000 hiztun baino gutxiago duenean hasten da. Sekek 700 ditu. Aurreikuspen guztien arabera, gaur egun, desagertuta egon beharko zuen, baina Brooklyneko arnaguneak epe laburrerako bada ere, hauspoa eman dio hizkuntzari. Hauspo ahula, hala ere. Etorkinek lanaldi luzeak izaten dituzte eta umekin egoteko denbora gutxi. Nepalgo Gobernuak ez ditu hizkuntza minoritarioak aintzat hartzen, beraz kulturagune edo hizkuntza zentrorik ez dago. Transmisioa bermatzea gero eta zailagoa da. Sekek hamar-hamabost urteko bizitza izan ahal duela diote adituek, baina Rasmina Gurung bezalako pertsonen esker testigantza idatzia eta grabatua ez ezik, itxaropena ere geratuko da. ●

KOSTALDEKO BUNKERRAK

Iragan deseroso baten arrastoak

Bigarren Mundu Gerran Alemaniako III. Reichak Frantzia inbaditu eta gutxira, lurraldearen ipar eta mendebaldea okupatu zituen, tartean Ipar Euskal Herriaren zatirik handiena. Okupazio haren arrasto materialak begi bistan daude oraindik, begiratu nahi duenarentzat.

 JOSU NARBARTE HERNANDEZ  MANEX ARGOITIA ZABALA

Armada alemaniarrek (*Wehrmacht*) Donibane Lohizunen ezarri zuen Euskal Herriko beren komandantzia nagusia. Bertatik Lapurdi, Gaskoiniako Landak eta Nafarroa Beherearen zati bat hartzen zituen zonalde okupatua kontrolatzen zuen -Nafarroa Beherearen beste erdia eta Zuberoa Vichyko gobernu kolaborazionistaren menpe gelditu ziren-. Zonalde okupatuan, mugimendu-askatasuna arras mugatuta gelditu zen, bereziki kosta-lerrotik hurbilen ziren lurraldeetan; 1941eko urrian, baldintza horiek eskualdea ia guztiz isolatzeraino gogortu ziren, eta abenduan *zonalde debekatu* izendatu zuten euskal kosta.

Militarizazio azkar hori lurraldearen kokapen estrategikoari lotuta zegoen. Alemaniarrek lehentasunezko defentsa -lerrotzat jo zuten Frantziaren erlaitz atlantikoa, Aliatuen kontraerasoa bertatik etor lekiekeelakoan. Gainera, Espainiako erregimena gobernu nazionalsozialistaren aliatua izaki, Bidasoako muga kontrolatuta izatea ere funtsezkoa zen, pertsona zein hornigaienezko pasabide segurua zaintzeko.

Hala, defentsa lerro sistema oso bat sortu zuten alemaniarrek euskal lurre-

tan. Baina gaur egun bunkerrak abandonuan erorita daude, zergatik? Naziak garaitu zituen frantziar erresistentziaren kontakizunean lekuko deserosoak direlako agian?

BAIONAKO PLAZA GOTORTZEN

Baionako plazak interes berezia zuen okupatzaileentzat. Lehenik eta behin, Aturriko portuak, txikia izanagatik ere, erraz defenda zitekeen babesgunea eskaintzen zuen. Gainera, eskualdeak interes ekonomiko argia zeukan: Forges de l'Adour labe garai ezagunak eta lantegi kimikoak Bokalen eta Tarnozen, industria aeronautikoa, kimikoa eta armamentistikoa Angeluko Blancpignon auzoan... Horrenbestez, alemaniarrek lan handiak hartu zituzten inguru honen defentsa bermatzeko.

Sistema horren hainbat arrasto ikus daitezke, egun ere, Aturriren ahoan kokatutako bi dikeen inguruan. Iparraldean, Tarnozeko dikeko hondartzan, alimaleko hilerri industrial baten erdian, Adour-Nord bateria dago. Barbara izeneko *Hochleitstand* edo behaketa-dorrea da multzo honetako elementurik ikusgarriena, baina inguruan badaude hainbat egitura: *blockhaus* edo pertsonentzako babesguneak, arma astunak kokatzeko



egiturak, kasamatak, behaketa-guneak... Konplexu osoa deseginda eta abandonatuta dago; gerra ostean, inguru hau artilleriaren entrenamendu-gune gisa erabili zuten, eta bunker gehienak leherarazi egin zituzten.

Aturriren beste aldean, Xibertako oihanaren ertzean (Angelu), Adour-Süd konplexuaren aurriek zaintzen dute bokalearen hegoaldeko dikea. Kasu honetan, urbanizazioak gogor eragin dio bateriari, eta egun hainbat arrasto saka-banatu baino ez dira ikusten ahal.

HONDARTZETAN AINGURATUTA

Aturriren bokaletik iparrera, Gaskoinako Landak zabaltzen dira. XVIII. mendetik goiti, higadura gutxitzeko pinudiak landatu ziren lurraldearen zatirik handienean eta, horri esker, kostaldean duna-leerro luzea finkatu zen.

Hegoaldetik abiatuta, hiru bateria



BIDASOAKO MUGAN. Lapurdi hegoaldean handia izan zen alemaniarren egitura defentsiboen kontzentrazioa, muga kontrolatzeko. Irudian, Hendaiaiko Abadia etxalde inguruko bunkerra, Txingudiko badiaren sarrera zaintzen.

-multzo dira bereziki aipagarriak, Tarnoze, Ondres eta Labenneko hondartzetan kokatuta. Bunker bakoitza itsasorantz destatutako arma astunak kokatzeko prestatuta zegoen, eta hiru mota nabarmentzen dira: *blockhaus*-ak, *Todt* edo frontedun kasamatak, aurrealdean tiro egiteko espresuki diseinatutako zirrikitu luzexka dutenak, eta *Tobruk* izeneko zilindro itxurako ganbera korazatuak. Kasu gehienetan, jatorrian haien azpian zeuden dunak lekuz aldatzen joan dira eta, ondorioz, egiturak okertu edo hondar artean erdi lurperatuta gelditu dira.

LABARRETAN INDUSKATUTA

Aturritik hegoaldera, bunker alemaniarren kontserbazioa eskasagoa da Lapurdiko kostan zehar, eta horrek lotura handia du lurraldeak XX. mende erditik hona

izan duen loraldi turistikoarekin. Gune urbanoak arras hedatu dira, bertan zegoen ondare naturala zein kulturala lausotuz.

Adibidez, Angeluko hondartzetan hiru bateriaren aurriak daude. Horietako bat aski ongi kontserbatzen da duna baten erdian, graffitiz estalita dagoen arren. Baina hurrengoak, aldiz, ia desagertuta daude, etxebizitza-multzoak eraiki baitzikiete gainean.

San Martin lurmuturretik hegoaldera, costa erabat aldatzen da. Labarrak eta hondartzak tartekatuta ageri dira orain, baina hemen ere topatzen dira hainbat bunkerren arrastoak, hotel zein luxuzko urbanizazioen artean ezkutatuta. Biarritzen, esaterako, lau bateria daude, horietako bat Hôtel du Palais famatuaren azpian. Bidarteko bateria nagusia, be-

rriz, Uhabia ibaiaren itsasoratzean dago, eta Getaria eta Donibane Lohizune lotzen dituen hondartza-lerroan ere zenbait *blockhaus* beha daitezke. Baina Santa Barbara lurmuturrekoa da, zalantzarik gabe, multzorik ikusgarriena: arrokan induskatutako bunkerrek eta porlanezko egiturek osatzen dute; itsasbehera denean oraindik ere ikus daitezke Skoda fabrikatzailearen zenbait arma astunen arrastoak hondartzan.

Lapurdi hegoaldeko costa osatzen duen erlaitzean badaude beste zenbait adibide: Zokoako itsasargi azpian edo Hendaiaiko Abadia gaztelu aurreko itsaslabarrean dauden kasamatak, Kauterabaita baserritik hurbil dauden *blockhaus*-ak... Badirudi okupatzaile alemaniarrek garrantzia berezia eman ziote la Bidasoako muga kontrolatzeari, inguru

honetan oso handia izan baitzen bunker eta egitura defentsiboen kontzentrazioa.

Askok gogoratzen du Zokoburuko puntaren urbanizazioa eta Hendaia kirol portua eraiki baino lehen, Txingudiko badiaren sarrera zaintzen zuen kai-muturraren alboan ere bazela bateria handi bat; inguru horretan, *Wehrmacht*-ek bere armarik sendoenak instalatu zituen, Errusiako frontean konfiskatutakoak kasu. Bateria hura azken hamarkadetako hedapen urbanoak irentsi duen arren, arma haien arrasto zenbait Hendaia hondartzan ikus daitezke oraindik ere.

EGITASMO ERRALDOI BAT

Euskal kostako bunkerrak ez ziren elementu isolatuak, askoz zabalagoa zen *Atlantikwall* edo "Harresi Atlantikoa" izeneko defentsa-sistemaren parte ziren. Sistema hori 1942tik aurrera eraiki zuen III. Reichak, Aliatuek mendebaldetik jo ziezaioketen erasoari aurre egiteko. 5.000 kilometro inguruko kostalerra zaintzen zuen, Bidasoatik Ipar lurmuturrera.

Lanak gobernu nazionalsozialistaren menpeko Todt erakundeari esleitu zizkieten, baina tokiko enpresen lankidetzat —eta gerra-presoen zein herri okupatuetakoz biztanleen bortxazko lan-eskua— ere baliatu zuten. *Regelbau* izeneko eraikuntza-metodo estandarizatua erabili zuten porlan armatuzko egiturak seriean ekoizteko; era horretan kostuak merkatu eta exekuzioa bizkortu zuten. Guztira, 12.000 egitura baino gehiago instalatu ziren Europako kostalde atlantikoan.

Aliatuek 1944ko ekainean eraso zuten Normandia, Harresi Atlantikoa puntu horretan hautsiz. Frantziako Estatuaren okupazio alemaniarrek ez zuen askoz gehiago iraungo; Ipar Euskal Herria urte bereko abuztuan abandonatu zuten, hori bai, ihes egin aurretik kostako bunker gehienak suntsituta. Gerra bukatzean, agintari frantsesek amaitu zuten lan hori, arriskuak saihesteko-edo, gelditzen ziren instalazio gehienak barrutik leherrarazi zituztenean. Okupazioak eragindako traumaren zein gerraosteko berreraikuntzak ezarritako lehentasunen ondorioz, arrasto guztiak abandonatuta gelditu ziren; berandu gabe, egitura gehienak higatzen eta desagertzen hasi ziren, memoria kolektiboa ia ahaztuta gelditzeraino.

Toki batzuetan Harresi Atlantikoa-ri lotutako hainbat elementu ikertzen



ITSASLABARREAN. Zokoako Kauterabaita baserriaren inguruan bunkerra erlaizteko errepede ertzean dago eta kanoi handi bat dauka oraindik alboan.

eta errestituratu hasiak dira. Aipagarriak dira, besteak beste, Frantzia museo bilakatu diren Ouistrehamgo Bunker Handia, Caen hiritik hurbil (Normandia), edota Audinghen herriko Todt bateria, Calais alboan (Frantzia Garaia). Iparre-rantz, ibilbide musealizatuak sortu dira Oostende hiritik hurbil (Flandria) eta

tira joan gabe, herri guztietako plazetan txukun zainduta egoten dira gerran zehar *Morts pour la Patrie* hildakoen omenezko monumentuak, eta ezin esan Bigarren Mundu Gerraren oroimena ez dagoenik presente egungo gizartearen memoria kolektiboan.

Diskurtso hegemonikoek memoria horren alderdi batzuk nabarmentzeko joera dute, ordea, erresistentziari eta garaipeari lotutakoak bereziki, eta deserosoak edo umiliagarriak gerta litezkeen beste batzuk (okupazioa, kolaborazionismoa...) ahaztuta gelditzea arriskua daude. Gainera, XX. mende erdialdetik aitzina, euskal kostak hondartzari eta aisialdiari lotutako opor-leku bilakatu da, kontsumo-gizarte berriaren bizimoduaren eredu; eta auto-errepresentazio hedonista horretan ez du nahi ongi ematen egun luxuzko hotelez inguratutako dauden hondartzetan, orain dela ez hainbeste, bunker alemaniarrek egon zirela gogoratzeak.

Aitzitik, argia da Harresi Atlantikoa- ren arrastoek duten balio historikoa, oraindik ere traumatikoa den iragan hurbil baten lekuko gisa. Bigarren Mundu Gerraren eta okupazioaren inguruan egiten diren diskurtsoak berraztertuta eta kritikoki lantzeko bidean, elementu hauek ikertzea, birgaitzea eta haien historia ezagutzera ematea urrats garrrantzitsua litzateke, desagertze-bidean dauden aurri zaharrak ondare gisa birdefinituz eta hezkuntzarako zein debate publikorako baliabide bilakatuz. ●

Argia da arrastoen
balio historikoa,
oraindik traumatikoa
den iragan hurbil
baten lekuko gisa

Rotterdamgo portuaren sarreran (Hollanda) ere. Egoera guztiz bestelakoa da Euskal Herrian, hemen ez baita ia lanik egin okupazio alemaniarren historiaren eta bere ondorioen memoria berreskuratzeko. Harresi Atlantikoaren arrasto gehienak abandonatuta daude, graffitiz josita, sastrakek janda edo, are, porlanez zigilatuta.

LEKUKO UMILIAGARRIAK

Alde nabarmena dago *ahantzura* honen eta garai bereko beste oroigarri batzuek jasotzen duten arretaren artean. Urru-



“Turkiarentzat krimena da pelikula hau existitze hutsa”



Ersin Çelic eta Diyar Hesso dira *Askatasunaren alde* filmaren zuzendaria eta ekoizlea, hurrenez hurren. Valentziako Mostran Bronze saria jaso ostean, Euskal Herrian proiektatu dute azaroaren hasieran eta politika, gerra eta erresistentzia uztartzen dituen proiektuaren mamia azaldu dute.

 AITOR ASPURU

Askatasunaren alde proiektatzen ari zarete munduko hainbat tokitan.

Zer da pelikulak kontatzen duena?

Ersin Çelic: HDP-k, Herrien Alderdi Demokratikoak –kurduak sortutako koalizioak– 2015eko ekaineko hauteskundeetan arrakasta handia lortu zuen Turkian. Recep Tayyip Erdoganen AKP alderdiak bozak galdu zituen eta ezin izan zion bakarkako gobernuari eutsi lehenengo aldiz alderdiaren historian. Orduan, bere ideologia turkiar-islamiakoa praktika ultranazionalista bilakatu zuen, Erdoganek ez zituelako emaitzak onartu. Gobernurik ez zen osatu eta berriro hauteskundeak egin ziren.

Tarte horretan Estatu Islamikoak HDPko eta AKPko ehunka disidente hil zituen bonba erasoetan Diyarbakirren, Adanan, Suruçen eta Ankaran. Dakizue-nez, Turkiak babestu zuen Daesh hasieratik.

Uztailean PKK eta Turkiako Gobernuaren arteko su-etena amaitu zen eta

Turkiak berriro ekin zion kanpaina militarri. Hain handia izan da erasoak, ezen herri kurduak gutxitan ezagutu baitu horrelako bortizkeria, agian birritan bere historian: hilerriak txikitu zituzten, eta eraildako jendearen gorpuak ibilgailu militarretan lotu eta arrastaka eramane zituzten hirietan zehar.

Gatazkak, borrokak eta erresistentziak piztu ziren dozenaka herri kurduetan, gehienetan poliziek gazteak ehizatzen zituztelako. Horren ondorioz, jende gaztea hasi zen antolatzen euren auzo eta barrutietan. YPS –autodefentsa zibileraiko unitateak– boluntario armatuen taldeak agertu ziren, gehienetan gazteek osatuta.

Orduan Turkiak hiriak setiatu zituen, atzerriko armada baten kontra borrokan jardungo balitz bezala, artilleria eta tankeak baliatuta herriguneen aurka. Cziren, esaterako, ehunka lagun bizirik erre zituzten soto batean, aurretik gosez hiltzen eduki eta gero.



Garai horretan Diyarbakirreko Sur barrutian gertatutakoa kontatzen duzue.

E. Çelic: Bai, Surreko erresistentzia, hain zuzen. Munduaren lotsarako, Surren historia ezabatua izan da, nazioarteko komunitatea begira egon arren. Gure lurraldean herriak, kulturak eta sinesmenak birrindu ditu bortizkeriak, inork ezer egin gabe. Isiltasun horren kontra aldarria da filma.

Gidoia oinarrituta dago erresistenteek eurek idatzitako testuetan. Egunkari horiek adore eman ziguten. Çiyager, taldeko komandantea, tematu zen eta agindu zuen bertan gertatzen zena publiko egiteko. Horrez gain, biziraun zuten YPSko lau kiderekin elkarrizketa luzeak izan genituen.

Askatasunaren alde modu bat al da zuen burkideak bizirik mantentzeko?

E. Çelic: Ahozko kontakizuna ohitura sendoa da Ekialde Hurbilean eta *Mila gau eta bat gehiago* ipuinean bezala, herri kurduak sentitzen du bere historia kontatzeari utziz gero, hilko dela.

Surreko erresistentzia ere ezabatzeko asmoa zuen Turkiak eta borrokalariek erabaki zuten ezetz, historia hori azaleratuko zela. Azkenean, kontakizunaren inguruko borroka bilakatu zen, batzuek desagerrarazi nahi zuten eta besteek sentiotik atera.

Diyar Hesso: Borroka hori ez da amaitu, Turkiak debekatu zuen gure Twitter kontua filma amaitu baino lehen. Tur-

kiarentzat pelikularen existentzia hutsa krimena da.

Filmean agertzen diren aktore batzuek setioaren erresistentzian parte hartu zuten, ezta?

E. Çelic: Bai, Haki eta Rubar Shervan *Pirata* egon ziren Surreko erresistentzian eta euren pertsonaiak antzeztea euren esku geratu zen. Horrez gain, aktore talde gehiena aritu da Estatu Islamikoaren kontrako borrokan, edo gerran hazi da. Jakina, ez dira profesionalak, baina benetako bizipenak eta sentimenduak izan dituzte, hortaz, horretan zentratu ginen. Hain zuzen, eurek hitz egiten eta jokatzeko moduan aritzea kamera aurrean, egunerokoan egiten duten moduan.

D. Hesso: Film osoak benetako jendea eta errealtatea du oinarri. Berez, Kobanen grabatu genuen, Estatu Islamikoak inoiz konkistatu ez zuen zonaldean, alegia. Horrek eragina izan zuen pelikularen taldean, Surreko bizipenak berpizteko. Estra asko auzo horretakoa zen gainera, eta pelikulan aritu zen boluntario askok bazekien historia hori zela eurek bizitakoaren oso antzekoa.

Azaldu duzu filmean agertzen diren aktore asko borrokalaria dela, zer gertatu da eurekin pelikularen ostean?

D. Hesso: Borrokan jarraitzen dute. Tamalez, kontatzen dugun historia gertatu da duela gutxi eta errealtatea ez da aldatu. Gerrak jarraitzen du, baita gure

herriaren aurkako genozidioak ere. Ez dugu amore eman, hortaz, grabaketaren ostean, borrokalariek aurre egin izan behar diete Turkiako Estatuaren inbasioei eta batzuk hil dira.

Rubar Shervan, esaterako, Kurdistango mendietan, Haftanin-en, zendu zen borrokan. Grabaketa taldeko beste kide batzuek ere galdu dute bizitza mendietan borrokatzen, adibidez, efektu bereziak eta ezta prestatu zituen lagunak.

Rojavako Zinema Komunaren sortzaileetako bat, Mazdek Ararat, auto istripu baten ondorioz hil zen. Ezbehar hori gertatu zen Turkiak Siriako Iparraldeko errepideak okupatu dituelako eta, hori dela medio, bidezidor arriskutsuak erabili behar ditu jendeak.

Bilboko proiektzioaren ostean pasadizo bitxia bezain beldurgarria kontatu zenuen filmean agertzen diren tankeei buruz, azalduko duzu, mesedez?

D. Hesso: Pelikulan agertzen diren tanke eta ibilgailu armatu guztiak YPG-k eta YPJ-k kendu zizkieten Estatu Islamikoko indarrei Kobaneko borrokan eta horren ostean. Daesh-ek arma ugari zuen, Mosul inbaditu zuenean han zeudelako. Herri kurduak ez zuen horrelakorik.

Hortaz, batailetan eskuratutakoak frontean erabiltzen ziren. Aldiz, bazeuden matxuratutako ibilgailu militarrek lehen lerroan baliatu ezin zirenak. Horiek margotu eta aprobetxatu genituen pelikulan agertzeko.

Egun batean, tankea mugitzen ari gi-

nen leku batetik bestera eta bat-batean gelditu zen. Gainera, tankearen kanoia Turkiara begira geratu zen –Kobane Turkiako muga dago–. Handik gutxira droneak agertu ziren eta ihes egin behar izan genuen. Bi egunez bertan behera utzi genuen grabaketa, uste baikenuen bonbardatuko gintuztela.

DYAR HESSO

“Genozidio saiakerak iraun bitartean, erresistentzia ekintza izango da edozein film edo abesti kurdu”



Bestalde, filmean ikusten den polizien ekipamendua –babesak, kaskoak, borrak...– Siriako Erregimenarena da. Gobernuak Kobane utzi zuenean han geratu zen material guztia eta guk ez dugunez horrelakorik erabiltzen herriaren kontra, beltzez margotu genuen, Turkiako Poliziak erabiltzen duenaren itxura izan zezan. Erraza izan da itxura bera izatea, erregimen autoritarioen logika bera da, hortaz, euren tresnak berdinak dira.

Ez duzue diru askorik izan, baina publikoak aipatu du oso ekoizpen profesionala dela Askatasunaren alde. Zer nolako bitarteko ekonomikoak izan dituzue?

D. Hesso: Pelikula bat egitea garestia da eta Rojavan ez dugu dirurik horretarako. Egia da Ipar eta Ekialdeko Administrazioaren diru-laguntza izan dugula, zehazki, arte eta kulturako batzordearena. Hala ere, zoritxarrez, gure lurraldeko gerra egoeratik, erraza izan da horrelako filma egitea. Hiri txikituak baditugu, baita armak eta ibilgailu militarrek ere. Gainera, estra moduan agertu direnek, aktoreek eta ia talde gehienek ezagutu dute gerra zer den eta lan egin dute sinesten dutelako proiektuan, soilik jana-riaren truke.

Aipatu duzuen horrekin guztiarekin, argi dago pelikula ez dela arte ariketa hutsa, tresna politikoa ere badela.

E. Çelic: Arrazoia oso erraza da. Ezin dugu jokatu faxismoa edo gerra egongo ez balira bezala. Faxismoa eta genozidioa dauden tokietan arteak esaten badu



“neutrala naiz”, absurdua eta zentzugabea izango da.

D. Hesso: Kurduen aurkako genozidio fisiko eta kulturalaren saiakerak irauten duen bitartean, edozein film edo abesti kurdu bilakatuko da erresistentzia ekintza.

Edonola ere, hau ez da bakarrik mugimendu kurduak babestutako ariketa politikoa, artea ere bada, gizarte kurduaren kontzientzia sustatzen duena. Egoera soziopolitikoak eragiten digu, baina gu ere eragile aktiboak gara.

Filmak akzio mordoa du, baina hori azalekoa bakarrik da, ezta?

D. Hesso: Hala da. Herbehereetako emakume bat ezagutu genuen Rotterdamen,

medikua zen, baita zinemazale amorratua ere. Hitz egin genuen apur bat eta berak interesa zuen filma ikusteko. Hurrengo egunean etorri zen proiektziora. Amaitu zenean, negar egin zuen eta aipatu zigun: “Nire iloba ekartzeko asmoa nuen, baina uste nuen gerra filma ez zela egokia izango irudi bortitzen ondorioz, berak 13 urte besterik ez dituelako. Orain, orde, damu naiz ekarri ez izanagatik, ikusi dudana ez baita gerrari buruzkoa, baizik eta adiskidetasuna eta giza harremanei buruzkoa”.

Borrokak grabatu nahi genituen, baina baita une txikiak ere. Momentu txiki horiek kontatzen dute dena: nortzuk ziren borrokalaria, zergatik egiten zuten hori eta zer zen garrantzitsua eurentzat. ●

Zenbakiek eutsitako kupula



NAGORE
IRAZUSTABARRENA
URANGA

Zalla (Bizkaia), XVI. mendea. La Mellako sakonunean Terreros leinua zen nagusi; familia horrek kontrolatzen zituen bertako dorretxea, burdinola, errota eta zubia, Urrutia familia nagusitasun hori lehiatzera iritsi zen arte. Enkarterrietako gune hori puntu estrategikoa zen, Kadaguako errege galtzada bertatik pasatzen zelako, Donejakue bidea ere bai, eta zubia igarotzeko ordainsariak diru-sarrera erakargarria ziren inguruko leinu nagusientzat. Horregatik, urrutiatarrek jauregi bat, beren burdinola, beste hiru errota eta beste zubi bat eraiki zituzten eta, pixkanaka, oreka haien alde hautsi zuten.

XVII. mendean Antonio Urrutia Salazar Jeronima Atxuriaga Murgarekin ezkondu zen. Alaba bakarra izaki, Juan Martinez Atxuriaga aita hil zenean ondasun ugari eta enkargu bat jaso zituen: aitarene eta gainerako senideen omenez kapera bat eraikitzea. Hala, Paduako San Antonio basiliza eraiki zuten, barruan hildakoaren eskultura zuela.

Azken urteetan, Zallako Udala La Mellako basiliza eta jauregiari garai hartan zuen distira berriro emateko lanean ari da, besteak beste, Ikusmira Ondarea enpresaren laguntzaz. Berreskuratze lanak duela urtebete inguru hasi ziren eta hiru urtez luzatuko direla aurreikusi dute. Baseliza egoera tamalgarrian zegoen, abandonatuta, landareek urak eta animaliek hartuta, eta hainbat habe kolap-



PADUAKO SAN ANTONIO BASELIZA (LA MELLA, ZALLA) KANPOTIK, ETA KUPULA, BARRUTIK.

satuta zeuden. Kupularen egoera bereziki kritikoa zen eta hura sendotzea izan zen lehenengo lana. Baselizaren kupula kanpotik ikusten ez den arren, barruan ahalegin hori egitea garrantzitsua zen garai hartan, kupula zeruaren irudikapena baitzen. Eta are garrantzitsuagoa zen eraikinaren egiturari dagokionez, kupulak banatzen baitzuen estalkiaren pisua.

Joan den urriaren 24an bisitaldi berezia antolatu zuten La Mellako basilizan, Europako Ondarearen Jardunaldiak aitzakia hartuta. Jardunaldion helburua ondarea eta hezkuntza batzea da eta La Mellako kupulak horretarako aukera egokia eskaintzen du, ez soilik ikuspegi historikotik, hainbat arlo kontuan hartuta baizik: matematika, fisika, kimika,



BIZKAIKO FORU ALDUNDIA / IKUSMIRA ONDAREA


geometria, materialen erresistentzia, mekanika... Alegia, iraganaz ikasteaz gain, zenbakiez ere ikasten laguntzen duela kupulak, 64 tonako estalkiari eusteko zenbaki asko behar baitira.

Urriko bisita hartan, Jose Luis Ruiz ingeniariak Pitagorasen aipu bat erabili zuen zenbakien garrantzia nabarmentzeko: "Landu ezazue etengabe zenbakien zientzia, gure krimenak kalkulu akatsak besterik ez baitira". XVII. mendean basiliza eraiki zutenean, ez zuten krimenik egin, denborak eta kanpoko eragileek eragin dute egitura arriskuan jartzea eta, orain, duela lau mendeko zenbaki horiek berak erabiltzen ari dira kupulari eusteko eta, hala, ondarea berreskuratzen. ●

Eurasiako pilotarik zaharrenak

Iaz Txinako ipar mendebaldeko Yanghai aztarnategiko hiru hilobitan ilez eta beste material bigunez betetako eta larrutan bildutako pilotak aurkitu zituzten. Züricheko unibertsitateko Patrick Wertmann arkeologoak *Journal of Archeological Science*-n jaso duenez, 3.000 urte dituzte eta, beraz, Eurasian aurkitutako zaharrenak dira –Mesoamerikan 3.600 urteko arrastoak

aurkitu dituzte eta, Egipton, 4.500 urteko sokaz egindako pilotatxoak. Wertmannek uste du Yanghaikoak polo jokoaren lehen arrastoak izan daitezkeela, hilobietan zaldunen jantziak eta bestelako tresnak aurkitu dituztelako. Baina hipotesia baieztatzeko elementu bat falta da: hilobi berriagoetan topatutako makil okerrak ez da oraindik aurkitu aztarnategi honetan. ●



UJA: PATRICIA MORA

AMAZON EZ

Amazon: libertatearen gatibu



Erosi hurbilen duzun liburu-dendan

ITSASO ZUBIRIA ETXEBERRIA

Lehengo astean *Erosi herrian* kanpainaren harira botatako diskurtsoaren ondoren, sartu dut sareko bilatzailean ARGIAko produktu baten erreferentzia eta hara non ireki zaidan, lau edo bosgarren postuan, Amazon munstroaren ahorako bidea. Ez da posible. ARGIA Amazonen? Ondoan dudanak dagoeneko igarri dit eta buruarekin keinu egin ez galdetu ea zer dudan, muturra okertuta.

Deitu dut ARGIAra. Ez azalpen eske. Ziur naiz akats edo trikima-luren bat egongo dela tartean, ARGIAk berak ez dituela bere produktuak kate handian sartu. Deitu dut abisua pasatzeko. Baina dagoeneko denak jakinaren gainean dira. "Ez dugu Amazonen egon nahi, baina sekula bertan egoteko baimenik eman gabe ere, komeriatan gabiltza hortik ateratzeko", erantzuna. Nik hots egin dudanerako lortua dute kentzea zenbait produktu. Bitartekaritza-lanetan ibili den pertsona, elkarte edo entitateari eskatu zaio kentzeko ARGIAren produktuak hortik eta hala ezabatu dira batzuk.

Itxura batera, ordea, ematen du denak ez direla bitartekari beretik iritsi Amazonera. DILVE Interneteko plataforma ere tartean dela dirudi.

"Liburuen metadatuaren banatzaile eta kudeatzailea" esaldiarekin aurkeztu du bere burua plataformak. ISBN Agentzian erregistratutako liburu berri guztien datuak pilatzen ditu (izenburua, editoriala, laburpena, orri kopurua, azal mota, edizioa, argazkiak...) eta bezeroari zerrenda hauek igortzeko aukera du. Amazonek eskatzen badio, demagun, hilabetero berrikuntzen datuak bidaltzeko, posible du, nahiz eta produktua bera stock-ean ez izan, bere zerrendan liburu horiek ere gehitu eta publikoki eskaintzeko.

Kuriosoa da aspektu batzuetan zenbat borrokatzen diren batzuk lizentziak pribatu mantentzen, argitaratu duten erreportajea berea dela eta egilea aitortuta ere ez dizutela bere horretan zabalitzen utziko; baina, aldi berean, merkatuen logikan sartzean nola baliatzen diren merkataritza librearen zirrikituek bestearena dena hartu eta salerosketan etekina ateratzeko. Zenbat kate dituen batzuen libertateak.

ARGIAk jarraituko du lanean bere produktu guztiak Amazonetik ateratzeko eta segituko du antolatzen zuzeneko salmenta eta bere komunitatearekin zuzeneko harremana erraztuko dion formula. ●

Puska dezagun izotza SOLASALDI ZIKLOA

Azaroak 30 INFORMAZIO BURUJABETZA

ARGIAko langileak mintzo.

Abenduak 2 BIOANIZTASUNA

Iñaki Sanz-Azkue Xapoketan karta-jokoaren egileetakoaren hitzaldia.

Abenduak 4 ILARGIA

Jakoba Errekondo Ilargia eta Landareak agendaren egilearen hitzaldia.

Abenduak 7 INOR EZ DA ILEGALA

Bouba Diouf Bilboko kale-saltzaile senegaldarren Mbolo elkarteko kideari elkarrizketa.

Abenduak 9 AGROEKOLOGIA

Lurra herriari deika ekimeneko hiru partaide mahai-inguruan.

Abenduak 11 LANDAREEN ZAINTZA

Jakoba Errekondo Etxeko Landareak liburua aurkeztu.

Abenduak 14 ETXEBIZITZA

Komunitatean bizi liburuan parte hartu duen Abaraska proiektuko kideak solasean.

Abenduak 16 EKONOMIA SOZIAL ERALDATZAILEA

Beñat Irasuegi Olatukoopeko kidearen hitzaldia.

Abenduak 18 INOR EZ DA ILEGALA

Tarana Karim migratu feministaren hitzaldia.



MASUSTA, MARUGA, MARRUBIA ETA MORALA



JAKOBA ERREKONDO
JAKOBA@BIZIBARATZEA.EUS

Hizkuntzalariarentzat ala filologoarentzat, ez dakit, baina hona lantxo bat. Ikaragarritzko nahastea dugu, neuk behintzat bai. Ataka honetan maiz topatu dut neure burua, batez ere komunikatzeko orduan, hitzak eman eta hartzeko orduan. Eta nahastearen edo bokataren hitza “masusta” da. Masusta edo Wikipediak dioen bezala maxusta, maraxuxa, maazuxa, masustra, masusa, masurta, ma(t)zusta, masosta, marzusta, marzuza, martutza, marzuzi, marzoza, marzuza, matsutsa, matsuts, matxutx, matust, maxoxa, maxuxa, maxurta, mazurtza, mazuza, mazuzta, masurta, matxutxe eta masuste.

Hemendik atzerakoa dena nire iritzi soila dela jakin ezazu. “Masusta” hitzarekin fruta mota jakin bat adierazten dela iruditzen zait. Polidrupa formako fruta; drupa edo barruan hezurtzua daraman aletxo asko biltzen duen igalia.

Bi generotako landareek ematen dituzte masustak, *Rubus* eta *Morus* generoetakoak. *Rubus* generokoak dira laharra (batez ere *Rubus ulmifolius*) eta mugurdiondoa (*Rubus idaeus*). Lahararren frutari masusta esaten zaio, mugurdiondoarenari mugurdi, bina baita ere masusta-gorri, gortale, margu, margu-gorri, martxuka-gorri, marguzi... Marrubiari (*Fragaria vesca*) ere, besteak



MARUGATZE ZURIA (MORUS ALBA).

beste, margu, marguazi, maguri, mangu-ri, mailubi, mailuki, arrega eta amarrugi ere esaten zaio; landareari marguosto. Rubustarrak zuhaixkak dira, marrubiak belarkarak, denak iraunkorrak.

Morus generoa beste sagardotegiko bukoa da. Arbolak dira, nik marugatze esaten diet. Asko dira, ezagunenak bi: marugatze zuria (*Morus alba*) eta marugatze beltza (*Morus nigra*). *Morus* izena latinetik dator, hizkuntza horretan marugatzeari hala esaten zaio. Marugatzek ere izen asko du: masusta, masuster, masustondo, masusta arbola, ma-

susta zuhaitza, moraondo, martoltza, martolzaondo, martzokaondo, martutz-piku, martutzondo, martotsondo martxuka, martxukaondo, marzuzondo, masusta-habe, masustabe, parra eta abar. Marugatzearen fruta maruga da, baina baita martola, martoltza, martutz, martxuka eta abar luuuuze bat.

Gaztelarekin batera garatu izanak ekarri ote digu, neurri batean, nahasketa hori? Haiek “mora” esaten diote laharren aleari “zarzamora” beharrian, baita marugatzearen aleari ere. Guk masusta bie. Era berean antza duten frutak, lehen aipatutako forma horretakoak edo antzekoak izen beretsuekin ezagutzen ditugu. Eta izen gehienak “ma” dute hasiera. Marua orbana da, intxaur alearen moskolak edo moskoronak uzten duen arrasto nabarmena; hau da, mazkaroa. Ma, ma, ma...

Erotu egin behar izen festa honetan. Ni aspaldi burutik jauzi nintzen hone-lakoetan, baina elkar ulertze aldera ere egin beharko dugu ba, ezta? Adorea eta kementa behar baitira zikulu-saltsa honetan bizitzeko. Nik marugatzea-maruga erabiltzen dut arbolarentzako eta laharra-masusta sasiarentzako. Izan ere, nere buruarekiko betebehara morala zen. Gaztelaraz hala esaten diote marugatzeari: “moral”. ●



MARTXEL AIZPURUA "ERLEEKIN SOLASEAN" LIBURUAZ

"IRRIBARRE BATEKIN ETA KURIOSITATEZ IRAKURRIKO DUTE GEHIENEK LIBURU HAU"



GARAZI ZABALETA
@TIRIKITRANN

1 983an hasi zen erleekin profesio-nalki lanean Martxel Aizpurua Agirre, *Erleekin solasean* liburuaren egilea. Erlauntzeko erle desberdinekin, erlezainarekin nahiz makala zuhaitzarekin kazetari moduan izandako hamabost "elkarrizketa" bildu ditu lanean, modu arin eta umoretsuan erlauntzeko bizitza eta funtzionamendua azalduz. Udako Euskal Unibertsitatearen webgunean eskura daiteke liburua.

Zerk bultzatu zintuen erleen mundua aztertzea, eta zerk liburua idaztera?

Formazioz biologoa naiz, historiaurreko polenaren azterketan hainbat urtetan aritu nintzen Aranzadi Elkartearekin, eta ondoren anaiarekin erle batzuk jarri eta haien eztiaren polena aztertzea pasa nintzen. Gerora eten bat izan nuen: munduari buelta emateko proiektu batean Afrikako itsaso batean nengoela, lehen sektorean hasi behar nuela bururatu zitzaidan. Lehen sektorean, zertan? Bada, ezin zuen bestela izan: erlegintzan eta eztingintzan! Liburuari dagokionez, lehendik ere baditut erleei buruz idatzitakoak, baina honen jatorrian ARGIAN aspaldi argitaratu nituen hiru artikulu daude: paper zaharren artean topatu nituen eta jarraipena ematea erabaki nuen.



Eta zer dela-eta erabaki zenuen umoretik, elkarrizketa forman idaztea?

Uste dut *Erleekin solasean* beharrean "Erleekin jolasean" ere izan zitekeela izenburua. Estilo horretako gauzak imajinatu eta lantzea gustatzen zaidalako hasi nintzen horrela. Orain, irakurri dutenekin hitz eginda, iruditzen zait erleez zer edo zer dakienak gustura irakurtzen duela, irribarre batekin, eta ezer ez dakienarentzat ere irakurketa erraza dela. Gainera, irakasle batek baino gehiagok aipatu dit ikasgelan lantzeko material polita dela.

Erlauntza osoa elkarrizketatzeko aukera izan duzu...

Bai, erle desberdinekin egin ditut elkarrizketak: erreginarekin, erlamandoa-rekin, segurtasun arduradunarekin, medikuarekin, kontabilitatekoarekin... guztiak irakurri ondoren osatzen da istorioa. Horrela egitea erabaki nuen, gogoratzen bainintzen ni umea nintzenean afalorduan irratan albatari eta baserri-tar baten arteko fikziozko elkarrizketak botatzen zituztela, eta nola hantxe egoten ginen denak txintik atera gabe irratia- ren bueltan. Beti gustatu izan zaizkit elkarrizketa horiek.

Asko aldatu al da erlezaintza azken 30 urte hauetan?

Bai. Guk 1986an elkartea sortu genuen oso antzinako erlezaintza aurkitu genuen, eta gaixotasunak zirela-eta halabeharrez aldaketak egin behar izan genituen: ikastaroak antolatu, berrikuntzak ekarri, erlauntza modeloz aldatu... Orain Euskal Herrian profesional handiak daude eta erleei buruzko ezagutza handia dago. Elkarteari esker, hein batean, sektorea formatua dago, eta baliabideak ere badaude. Gu izan ginen, nolabait, garai bateko erlezaintzaren eta oraingoaren arteko zubia. ●

Sukaldean aritzea
gustatzen zaizu?



ERREZETA-
LEHIAKETA



CPAEN NNDP



- > 1. saria: 150€ zure denda ekologikoan gastatzeko.
- > 2. saria: 100€ zure denda ekologikoan gastatzeko.
- > 3. saria: 50€ zure denda ekologikoan gastatzeko.

Parte hartu elikagai ekologikoekin egindako errezeta bidaliz edo partekatuz eta irabazi; azaroaren 16tik abenduaren 15era arteko epea duzu, biak barne.



Informazio gehiago:
www.navarraecologica.org

ETIKETAK ZAURITU DU FIKZIOZKO BEGIRADA



“Tarantinokeriak”, “klima aldaketa” edota “arrazismoa AEBetan”.

Ikus-entzunezko streaming plataformek etiketetan sailkatuta eskaintzen dute fikzioa. Kultur industriaren azken jokaldietako bat da: fikzioa tematizatuta sartzan zaigu egongelaraino, erlazio prefabrikatuek zurrunduta, ikusleak bere baitan egin ditzakeenak baldintzatuz. Gainera, kontsumo eredu horrek bete-betean indartzen du lehendik ere setati zetorren joera: edukikeria, edo gaira murritzeta fikzioaren konplexutasuna. Bi hari horietatik abiatuta, fikzioaren hainbat irakurketa garaikide aletzen saiatuko gara ondorengo lerrootan.

 KEPA MATXAIN

Afalostean total eginda lotaratu aurreko luxua –hala izendatzera iritsi da– eman nahi dio bere buruari irabazi askorik gabeko langileak eta, sofan trauskilduta, urrutiko aginteari sakatu eta Filmin-en sartu da. Zer ikusi nahi duen, arrastorik ez; azkar asko amildu da bertako supermerkatu tematikoan: “Holokaustoaren memoria”, “Ekialde Hurbileko feminismoa”, “Irakeko gezurrak”, “elizaren abusuak” eta “ETAren amaiera” bistaratu ditu lehen kolpean. Ordu horietarako harri kozkor handitxoak ez ote diren, *scrolling* segi du pixka batean: “kolapso handiak”, “lehen maitasuna”, “polizia ustelak”, “LGTBI harrotasuna”, “sektak”, “narkoak”. Horietakoren bat agian, pentsatu du, baina segi dezadan begira: “biboteak zineman”, “hitz egin dezagun sexuaz”, “cruising”, “Aste Santua”. Beste eginahal baterako indarra bildu du: “udako ipuinak”, “tiroak eta petardoak”, “igerilekuak”, “Trumpek ikusten ez duena”. Demagun azken hori egin zaiola deigarri, AEBetako hauteskundeak igaro berri direnez gero. Edo demagun ezetz, beste gai baten alde egin duela. Ez digu axola. Hemen beste afera bati heldu nahi zaio: etiketa fikziora iristeko irizpide bilakatu den

honetan, ez ote dugun beste jauzi bat eman kulturaren tematizazioan; *tag*-a etxeko egongelaraino sartzeak ez ote duen zauritu lehendik ere zakurrez-tulak jota zebilen fikziozko begirada. Bistakoa da Filmin, Netflix, HBO eta gisako plataformetan. Kultur industriak funtzionatzeko baitezpadakoa du kontsumitzaile taldeak asmatzea, eta *target* zehatzentzako amu gisa darabiltza etiketak. Noski, operazio komertzial horrek ondorioak dauzka: guztia etiketa zaku bihurtuta, gako-hitz beraren pean aurki ditzakezu formalki elkarren antipodetan dauden lanak. Baina ondorio kezkarriena, ziur asko, hartzailearen begiradari dagokiona da. Etiketa itzala iritsi da klase guztietako pelikula, nobela edota antzerkitara iristeko daukagun moduetara. Parametro tematikoak izugarri baldintzatzen digu fikzio-hautua: esadazu zertaz den, zer jorratzen duen, eta esango dizut helduko diodan.

Fikzioaren tematizazioak edukikeria elikatzen du: fikziozko lanen atzean legokeen gaia arrantzatza mugatzen den begirada mota bat –formalismoaren antipodetan–. Peio Aguirrek idatzi izan du auziaz: “Ez al genuen adostu artea ez dela errealitatea, baizik eta haren isla bat, edota, nahi bada, oso-



toro asmatutako errealtate berri bat? Ingurura begiratuz gero, nekez aurkituko dugu gai bezala aurkezten zaigun errealtaterik. Elkarrekin borrokan eta kontraesanean dabiltzan errealtate asko ikusiko ditugu". Haren ustez, pentsamendu kontserbadorearentzat helduleku da gaia, obraren baitako dimentsioak kategoria bakarrera murrizteko beharra baitu. Inguruotan ez dira falta joera horren indarra erakusten duten adibideak: hor dira, besteak beste, Jose María Pozuelo Yvancos kritikariak Kirmen Uriberen *Elkarrekin esnatzeko ordua* abertzaletasunaren apologiara murriztu zueneko, edota Jaime Rosalesen *Tiro en la cabeza* (Tiro bat buruan) filmak eragindako erreakzio sorta, ETA-ren indarkeriaren gaia era horretara enfokatzea onartezina zela ziotenak, funtsean. Tankerako kasu askotan, baita balio ustez progresistetatik egindako irakurketetan ere –inork esplizituki esan ez arren–, erresistentziak sumatzen dira aitortzeko obrak bil dezakeela gaiaz haragoko konplexutasunik, eta ahal bezain pronto lurreratu nahi da, ahalik eta kategoria hermetikoenera, esentziara. *L'art pour l'art*-en ifrentzua: artea gaira murriztua. *Tag* fenomenoak joera zabalago hori hauspotu baizik ez du egiten.

AUTOREAREN PIZTUERA

Autorea hil zuen Roland Barthesek 1968an, fikzioaren ordura arteko eske-mak aldaraziz. Aurrerantzean obra ez zen izango autore aktibo batek hartzaile pasibo batentzat sortzen zuen zerbait. Autorea hilda, obrak haren menpeko izateari uzten zion, kode ireki bihurtuz. Eta haren interpretazioa hartzaileari baizik ez zegokion. Obrari –eta, beraz, hartzaile-

Guztia etiketatuta,
hitz gako beraren
pean aurki ditzakezu
formalki elkarren
antipodetan dauden
lanak

leari– zentraltasuna aitortzea fikziozko begirada konplexu baten aldeko aldarri gisa uler daiteke, azpimarratzen duelako artefaktu batek askotariko dimentsioak bil ditzakeela bere baitan –autorearen kontroletik haragokoak horietako asko–, hartzaile bakoitzarengan desberdin biderkatzen dela, eta, beraz, ezin dela hura gai bakarrera murriztu –ezta gai sorta

batera ere–.

Baina Barthesek hura idatzi zuenetik mende erditik gora igaro den honetan, batek begiratzen du ingurura eta zinez kosta egiten da autorea hilda dagoenik sinesten. Kontrara, bizi-bizirik jarraitzen du, ez Barthesek hil aurreko zentzuan bakarrik, baita plaza publikoan ere. Artista berpiztu da, eta orain enpresaria da edo, are, *entrepreneur*-a, bere liburuaz hitz egitea aski ez eta marka gisara berrasmaturia, bera den guztia –obra, diskurtsoa, ideiak, gorputza– produktu bihurtu eta kosta ala kosta inori saldu nahian –mundu guztia bezala, funtsean–. Aldi berean, kultur eskaintzak gainezka egin du, harri bat altxa eta derrigor ikusi beharreko 100 telesailen zerrenda kausituko duzu, eta gero liburuena, eta pelikulena, eta buruak ezin du datu gehiago atxiki. Guztia esku-eskura, baina dena ikusteko astirik ez: bata ala bestea hautatu behar horretan, sinopsiaren logikak agintzen du maiz, eta etiketaren amuak garamatza fikziora. Edonola ere, ez da auzi isolatua. Garaiko joerarekin ezin hobeto ezkontzen da.

FIKZIOZKO BEGIRADA KRISIAN

Artzainak oihukatu zuen "otsoa dator!", baina ez zetorren otsorik. Une horretan jaio zen fikzioa, Vladimir Nabokovek

dioenez. Humanitatearen historia ia guztian narrazioak sinetsiak izateko sortu izan dira. Mitologiatik eta erlijioetatik dator literatura, eta Biblia bera, urrutira joan gabe, hitzez hitz hartu beharreko kontakizun bezala idatzi zen. Fikzioaren eremua zabaltzen joan zen pixkanaka eta, mende askotako lan intelektualaren ondotik, XIX. mendeko nobela handian jo zuen goia. Nobelaren esparrua ezarri zen orduan, autorearen eta irakurlearen paktu moduko batetik: biok dakigu ez dela otsorik, baina jolas dezagun ispiluhonetan haren etorrera irudikatzen. Jakintzat ematen zen nobela batean errealitatearen antzeko ezer ageri bazen kasualitate hutsa behar zuela.

Gauzak asko aldatu dira ordutik. Due-la ia bi hamarkada iragarri zuen Maurice Blanchotek nobela bere horretan desagertzera zihoala. Oraingoz ez dira aurreikuspenak bete, baina egia da nobelagintzak aldi luzea daramala irauteko modu berrien bila, bere biziraupena arriskuan ikusirik. Bide horietako askok *-nouveau roman*-ak, esaterako- lengoaiaren esperimentaziora jo zuten, hizkuntza bortxatzen, muturreko apustu formalak eginez. Ez zen debaldeko esperimentazioa, ordea. Sakoneko arantza bati erantzun nahian zebiltzan: nobela, artefaktu bezala, ez ote zen garai batean bezain baliagarria mundua kontatzeko, jendearen arazoez hitz egiteko. Doris Lessingek esana da: "XIX. mendeko izen handiek ez zuten bat egiten ez erlijio kontuetan, ez politikan, ez eta irizpide estetikoetan ere. Baina bazen elkartzen zituen zerbaite: antzeko balio etikoak zituzten". Existentialismora arte nola edo hala iraun zuten balio humanista haiek erabat ezereztu dira, eta nobela krisian bizi da ordutik. Ematen du kon-denatuta dagoela kontakizun partzialak biltzera. Ataka horretan, idazle sorta handi bat -Seald, Ernaux, DeLillo, eta abar- hasi zen autofikziora jotzen. Egun, muturrera joan da joera hori, eta ez literaturan bakarrik: edonon ikus daitezke artefaktu hibridoak, errealitatearen eta fikzioaren artean dabiltzan piezak. Autofikzioaz gain, gora eta gora dabil-tza biografiak eta memoriak: badirudi lehen pertsonak liluratzen duela irakur-lea, beste ezerk baino gehiago. Ni narra-tiboaren garaia da.

Paraleloki, hiperrrealitate garaia bizi ditugu, *mass media*-renak, ia gerta-kariarekin batera jasotzen ditugu haren narratiba orkestratuak. Adibideak, mi-laka: Dorre Bikiak erori zirenekoa, edo,



ETBko *Alardea* eta *Altsasu* telesailek erakusten duten moduan, fikziozko lanak gaiaren arabera kontsumitzeak indartu dezake lehen albistegietan ikusten genituen historiak istorio bihurtuta ikustea.

gertuago, COVID-19aren inguruan piztu den berba-jario guztia, gerra-metaforak eta fase zehatzetan zatikatutako aldiak. Errealitateak ordu gutxitan ekoizten ditu klase guztietako narratiba arranditsuak, eta fikzioak geroz eta zailagoa dauka harekin lehia.

Obrak bil dezake
gaiaz haragoko
konplexutasunik, baina
gaur egun ahal bezain
pronto lurreratu nahi
da, ahalik eta kategoria
hermetikoenera

Panorama horrek baditu bere arris-kuak. Ematen du fikzioa hautemateko modua aldatzen ari dela -nonahikoa izatearekin batera hutsal bihurtu balitz bezala-, eta krisian dela berriro auto-rearen eta hartzailearen arteko paktu zaharra. Jada gutxik sinesten du otsoan, eta artzainak haren etorrera zergatik iragartzen duen galdezka dabil-tza geroz eta gehiago.

FIKZIOA ETA KONPROMISOA

Fikzioaren irakurketa sinplista horieta-ko asko sarri izaten dira haren plano po-litiko-ideologikoari dagozkionak, ohartu gabe dimentsio horiek ere ezin direla ga-noraz aztertu edukira murrizten den be-girada batetik soilik. Literatura konpro-metituaren auzi zaharra gogorarazten dute. 60ko hamarkadako Hego Ameri-kako *boom*-ean kontu aski eztabaidatua izan zen. Literatur berrikuntza eta be-rrikuntza politikoa eskutik zihoazela ematen zuen orduan, Kubako Iraultzak piztutako ilusioak lagunduta. Testuingu-ru hartan, Ricardo Pigliak hizpide hartu zuen konpromiso literarioaren auzia. Haren ustez, "literatura konprometitu" terminoak jarrera indibidualista dakar berarekin. Horren aldean, nahiago zuen literatura praktika sozial gisa ulertu, eta gizartearen fikzioak zein funtzio betetzen duen aztertu. Pigliak dio literaturak hiz-kuntzarekin egon behar duela konpro-metituta, gai izan behar duela hizkuntza-ren erabilera nagusiak kritikatzeko. Hori eginez soilik eraikiko luke estatuak -edo merkatuak- darabilen hizkuntzaz hara-goko esparru alternatibo bat.

Konpromisoaren eztabaida ezin da gaira murriztu, beraz, ezta edukira ere: erabiltzen den lengoia motarekin du zerikusi gehiago -eta, hortaz, afera for-malekin-. "Estatuak gabeko gizartea



da literatura”, dio Pigliak, “inolako erakundek edo bestelako indarrek ezin du behartu inor poetika artistiko jakin baten alde egitera”. Horregatik iruditzen zaio konpromisoa ez dela fikzioan afera politikoak hizpide hartzea, ezpada museoaren eta merkatuaren arteko dinamikez gogoetatzea. Horra konpromiso artistikoaren koordinadak: museoak, zilegitasunaren eta kontsagrazioaren metafora gisara, eta merkatua, obren zirkulazio esparru gisara –diruak baldintzatua, beti ere–. “Marko horretan sorkuntzaren auzia ikusgarriagoa eta konplexuagoa bilakatzen da aldi berean”.

AKTUALITATEA DA FIKZIONAGARRI

Aipatu denez, fikzioaren parke tematikoan ondo kotizatzen dute autofikzioak eta errealtatearekin lotura duten artefaktu hibridoak. Joera horren hurrengo aldaera bertan da: aktualitateko gaiekin fikzioa egitea. Edukiaren merkatuan, nekez aurki daiteke gertatu berri dena baino etiketa erakargarriagorik. Hiperrealtatearekin lehiatu behar horretan, inoiz baino gehiago, iragan hurbila –kasik orainaldia– bihurtzen da fikzionagarri.

Elias Canetti Parisen zen 68ko maiatzean. Bertatik bertara bizi izan zituen han gertatuak, baina ez zuen haiei buruzko ezer ere idatzi. Gerora, kazetariak harrituta galdetu izan zioten ea esperientzia hark ez ote zion ezer eragin. “Denbora

luzez aritu nintzen gertakari haiei bueltak”, erantzun zien Canettik, “hala jarraitzen dut oraindik. Hain justu, horregatik ez ditut inon aipatzen. Niri ez dagokit gertakari guztiei buruz iritzia ematea, kazetariei eta politikariei bezala; saiatzeko naiz bizipenak barruan eramaten, ulertzera iritsi naizela sentitzen dudana arte. Ulertu baino lehen ezingo nuke haiei buruzko ezer esan. Arduragabekeria litzateke”.

Konfinamenduari
buruzko liburua
ateratzeko lasterketak
edo ETBren
udazkeneko telesailetan
aktualitateko
gaiek duten
presentziak baieztatu
dezake fikzioaren
tematizaziorako joera

Canettiren espiritutik urrun, aurtengo otsailaren 29an hasi zen Paolo Giordano *Nel contagio* idazten. Pare bat astetan amaitu zuen, eta hilabeterako kalean zen, pandemia bete-betean, COVID-19aren

iritsieran girotutako egunkari intimoa –*Kutsaldian* izenburuarekin publikatu du euskaraz Erein argitaletxeak–. Handik gutxira hasi ziren fikziozko lanak: Roberto Rodriguez Morok *El confinado* (Konfinatua) argitaratu zuen, hamabost egunetan idatzitako thriller-a; María Zabayk *Aislada* (Isolatua) atera zuen laster; Venezian pandemiak harrapatuta gelditzen den gazte baten istorioa; Luis Campo Vidalen *Mi país soñado* (Nire ametsetak herrialdea) iritsi zen ondoren, konfinamenduko hogeitaz egunetan idatzia. Telesailak ere egin zuen jauzi olatuak: *Grey's Anatomy*-k (Greyren anatomia) iragarri zuen hurrengo denboraldia koronabirusaren inguruan girotuta egongo dela. Eta horiek aurreneko aleen artean bakar batzuk besterik ez dira. Edonola ere, muturreko adibide horiez harago, agerikoa da joera: urrutira joan gabe, hor dira ETBk udazkenarako ekoitzi dituen hiru telesailetatik bi, *Alardea* eta *Altsasu*. Hartzailea bete-betean interpelatuko duten gaien alde egiten da, gero eta gehiago. Noski, aktualitateak beti izango du tiradizo gehiago horretarako. Horra etiketaren logikaren beste albo-ondorio bat: presentismoa indartzen du. Fikzioa gaira murrizturik, ibilbide laburreko loturak sustatzen dira, obren arteko elkarrizketa sakonak oztopatuz –askotariko logikei erantzuten dietenak, ezinbestean–.

IRAKURKETA KONPLEXUAREN PEDAGOGIA

Bistan da, haizeak ez du alde jotzen, saturatuta bizi gara eta narratiba uholdeak kontrako eztaarritik joaten zaizkigu egunero. Ez da klima aproposena fikzioak eskatzen duen patxadazko begiradarentzat. Zurrunbilo horretan, ematen du etiketa ari dela nagusitzen fikzioarako helduleku nagusi bezala, eta etiketaren babesean, edukieria, fikzioaren gaia ehizatu nahi duen begirada murriztailea. Horren aldean, irakurketa konplexuen aldeko pedagogia pixka bat egitea gelditzen da. Agian oraindik bada zer erreskataturik Barthesen ekarritik: esaterako, fikziozko lanak kode irekitzat ulertzea. Eta, bide batez, edukiaz haragoko dimentsioei arreta jartzea. Pigliak esandakoaren bidetik, fikzioaren partida politikoa ez baita jokatzen obra bakoitzaren balizko edukietan, ezpada merkatuak ezarri nahi duen hizkuntza nagusia disputatzean. Eta hori, inoiz iristekotan, fikzioaren lengoaiari eta hari dagozkion auzi estetikoei zentratutasuna aitortzetik etorriko da, ezinbestean. ●



LIBURUA

Jelosia posesiboaz, eta ez maitasunaz



KONTU PRIBATU BAT

EGILEA: BEPPE FENOGLIO

ITZULTZAILEA:

JOSU ZABALETA KORTABERRIA

KATAKRAK, 2020

IBAI ATUTXA ORDEÑANA

Katakraken oharrean eta Paul Beitia-ren hitzaurrean esango zaigu: *Kontu pribatu bat* ez da soilik gerra-eleberria, maitasun-eleberria ere bada. Eta onartu behar dut, zerbaitekin insistitzen zaidanean automatikoki datorkit sospetxa. Istorioa irakurri eta diot: hau ez da maitasun-eleberria; hau da eleberri bat jeiosia toxikoaz eta maskulinitate posesiboaz –agian klase zapalkuntzaren abolizioak ezabatuko ez lukeen genero zapalkuntzaz– diharduena.

Heart of Darkness, *Apocalypse now*, *Rambo II*, *Saving Private Ryan*, 1917: ezagutzen duzu jada eleberri hau, agian pelikula forman bada ere. Gerraren batean bidaiari ekiten diote protagonistek eta narrazioek maila kasik alegorikoa

hartzen dute. Kasu honetan, Bigarren Mundu Gerran gaude, Italian, eta Milton partianoak ekingo dio bidaiari. Kurtzen bila baino, Giorgio salbatzera joango da, eta *Kontu pribatu bat* beharrean izan zitekeen *Saving Partisan Giorgio*. Ezagutzen duzu eleberria eta sarri gertatu bezala, interesgarria da arreta jartzea errepikapenetan baino, Fenoglioren eleberriaren diferentzietan.

Ez dago maitasunik eleberrian. Mil-tonekin dio Fulviarekin maiteminduta dagoela. Eta? Akzioa akuilatzen duena beste zer bait da. Protagonistak Giorgio eta Fulviaren arteko harremanaz jakin eta kontrola galtzen du erabat: “Burua lehertzeko zorian daukat” esango du harremana ezin onartuta, jeioskor; “Fulvia-

rik gabe ez zen udarik egongo beretzat”, dio posesibo. Maitasunaren arrastoak baino, ideia erromantikoei darien maskulinitate biolentoen tranpak irakurri ditut etengabe pertsonaian.

Argi gelditu dadila: ez naiz ari eleberria ile kontra interpretatzen. Ez behintzat testuaren amaiera kontuan hartuta. Horixe da hain justu, interesgarri egiten duena: ezkerreko gizon iraultzaileen biolentzia erromantikoa irakurgarri egitea. Maitasun erradikalak eta eraldatzaileak elkar eraikitzeke eta elkarrekin eraikitzeke eginbide berriak mahai-gaineratuko baditu, lehenengo jabetu beharko dugu jeiosia erromantiko posesiboak dakartzan bortxez; baita gerra garaian ere. ●



MUSIKA

Soinu margoak eta paisaiak



KOLOREAK

HABI

ELKAR, 2020

JOXI UBEDA GOIKOETXEA

Leuntasuna eta indarra, intentsitatea. Erritmo eta giro aldaketak, paisaia eta kolore ugari antzeman daitezke Amasa-Villabonako (Gipuzkoa) Habi taldearen bigarren diskoko kantetan.

Tarteka, finak, delikatuak eta hunkigarrak diren doinuak entzun daitezke, dis-tirarekin, melodia politak. Beste pasarte batzuetan, berriz, soinu astindu bat senti daiteke, distortsioa, doinuak bortitzak baitira, gordinak, zaratatsuak. Ekaitza eta barealdia ederki uztartu dituzte.

Jon Ander Artolak oso ongi jotzen ditu erritmo lasaiak, biziak eta jostalariak, edo indartsuak eta sendoak, kolpe zehatzekin. Yeray Gasconek, bere alde-tik, ongi betetzen ditu kantak bere gitarraren akordeekin, marrazkiekin eta gainerako ñabardurekin, eta ongi janz-

ten ditu bere ahots berezi eta sentiberekin.

Kanten bidez, amildegia ertzetik ihes egiteko edo zulotik ateratzeko itxaropena eta nahia transmititzen dute. Estropezu bat egin edo kolpe bat jaso arren, altxatzeko gogo, aurrera egiteko. Mina, desamodioa, heriotza... arazoei aurre egiteko kementa. Hori guztia barnetik adierazten dute, sentitzen duten moduan, eta autokritika ere egiten dute.

Loratu izenburu duen lehen diskoa iaz kaleratu zuten, eta disko horrekin bezala, lan berriaren grabazioa Elkar estudioetan burutu dute, Victor Sanchez soinu teknikari eta ekoizlearen gidaritzapean, eta emaitza oso ona izan da. Ekoizpen lan ona egin baitute, moldaketak eta xehetasunak arretaz landuta, denak bere tokian,

soberan egon daitekeen apaingarririk gabe, eta kantak garbi, ozen eta indartsu entzuten dira.

Koloreak lana CD eta binilo moduan argitaratu dute, Elkar argitaldaria-aren laguntzarekin. Eskuratzeko zailtasunak dituenak taldearen webgunearen bidez egin dezake (www.habi.eus).

Habi taldea arin ari da bere ibilbidea egiten. 2018an sortu zen, bi urte eska-sean bi disko osatu ditu, eta jendaurreko emanaldi mordoak bat egin du hainbat herritan. Eta hasi besterik ez dira egin, musika grina handiarekin bizi eta egiten baitute. Horrela, lehen diskoarekin alderatuta, nabarmena da taldeak bere bideari jarraituta urrats bat aurrera egin duela *Koloreak* diskoarekin, bai kantei bai ekoizpenari erreparatuta. ●



Mende herena ia

AMETS ARANGUREN

NAFARROAKO BERTSOZALE ELKARTEA

Urteroko zita sakratu horietako bat da bertsozaleendako Iruñean Bertsoaroa, berdin astearte euritsu edo ostegun pandemikoa izanik. Horren seinale da zikloko azken iaialdi honetarako gonbidapenak lortzeko Nafarroako Antzerki Eskolatik 100 metroko ilara jendetsua. Bertsoaroak 30.a zuen aurten.

Egunean bertan atera ziren pandemiaren inguruko neurri berriak: kultur ekitaldietarako aforoaren handitzea eta tabernetako terrazen irekiera, besteak beste. Lehenengo horri eutsi eta Maialenek ongi kantatu zigun bezala, bai, hilabeteren ondotik terrazak berriz ireki eta gu, areto itxira. Beste behin ere, korrontearen kontra. Maialen Lujanbio, Erika Lagoma, Julio Soto, Eneko Lazkoz, Josu Sanjurjo eta Beñat Gaztelumendi oholtza gainean, Maialen Belarra gai-jartzaile eta taldeko beteranoenaren urtebetetze eguna.

Bertsoaroaz 30. aldiz gozatzer

zihozazanak topatu nituen areto barruan. Hala ere, ez dakit belaunaldi kontua den, moda ala beste zerbait, baina esanen nuke publikoaren erdiak-edo Bertsoaroaren ondotik jaioak ginela eta hori gustatu zitzaidan. Segi dezatela esaten gazteok zein lehenetasun dugun edo zein ez...

San Saturnino eta San Fermin dira Josu eta Julio, zein den inportanteagoa argitzeko eztabaidan. Eneko eta Maialen Maria Chivite eta Bakartxo Ruizen azaletan, LKN artistak Nafarroako Parlamentu parean eginiko bi politikarien arteko musua irudikatzen duen grafitian. Eta Erika eta Beñat kuadrillako lagun bi, bertso saiora ala tabernara joan erabaki ezinik.

Ni bitartean, betiko kontu bati erreparatzen: bertsolarien buru barrukoak ikusi ezin eta haien gorpuzkerari begira. Bi joera argi daude: alde batetik, 78 urteko gizonak paseatzen imajinatzen dituzunean eskuak nola, bertsolariek hala. Batek daki zertan aritzen diren hatzekin

BERTSOAROA

NOIZ: azaroak 26.

NON: Nafarroako Antzerki Eskola.


hor atzean... silabak kontatzen? Bestetik, bigarren klasikoa: arratsaldean saioa dutela pentsatu eta galtzak horren arabera aukeratzen dituztenak, poltsikoak izan ditzaten, bai ala bai. Azken honetan bada aldaera bat, Beñat Gaztelumendiren eskutik ezagutua: eskuak poltsikoe-tan bai, baina hatz lodia kanpoan, beti dantzan.

Mikel Zabaltza orbaitzetarra gogoratu, Maialenek urtebetetze festa antolatu eta aurtengo Euskaraldiaren *Gehiago, gehiagorekin eta gehiagotan* leloari bigarren irakurketa egin zioten Erikak, Enekok eta Josuk, hizkuntza-ohituretatik harago.

Esanen nuke Juliori tokatu zitzaio-la gairik potenteena. Dotore eman zion buelta gorritiarrak berriki hildako futbolariaren harira sareetan ikusitako me-zuek sortutako haserre eta eztabaida egoerari. Indarkeria matxistaren kontrako egunean indarkeria hori gauzatu duen norbait hiltzea... kointzidentzia, gutxienez. ●



Sudoku




EZKER-ESKUIN:

1. Ohar. | Iratze. 2. Makila lodi, haga. | Oinetakoak garbitzeko pasta. 3. Errenta.
4. Garia dagoen alor. 5. Katu. | Harrera ona. 6. Donari, golardo. | Egiatan. | Burusoil, karsoil.
7. Aurretik gertatutakoa. | Kuartela. 8. Laian egiten duena. | Basaki.



GOITIK BEHERA:

1. Bukaera. | Saldu aditzaren infinitiboa. **2.** Zabaldu hitzaren erdian. | Ilun dagoen egunaren zatia.
3. Arnasa hartzea eragozten duena. **4.** Herri kirola. **5.** Kaiku, kirten. | Eritreako domeinua.
6. Errepikapena adierazteko. | Eguzki. **7.** Gero, gerora. **8. Argazkiko ibaia (Lapurdi).**
9. Rutenioaren ikurra. | Oratuz. **10.** Aholku. | Zerbaiten kanpoko alde. **11.** Sailburu (laburdura).
12. Googobetea. **13.** Soritu aditzaren erroa. **14.** Tinko, irmo. **15.** Pozkor, alegera.



Esaera zaharra

KOKA EZAZU PUZZLEAREN PIEZA BAKOITZA
BERE TOKIAN ETA ESAERA ZAHAR BAT
AGERTUKO ZAIZU.



Anagramak

HITZ BAKOITZAK AURREKOAK DITUEN
HIZKI BERA DITU, BAT IZAN EZIK, BAINA
BESTELAKO HURRENKERAN.


Eginkizun
Fruitu garratz
Sokil, mokor
Ariketa, joko
Oin-itxurako pieza
Oroitu
Aitormen
Atsegin, on
Jantzi dotore
Zintzarri
Eraman
Jo, jipoitu
Dendu

[illegible]**EBAZPENAK**

„INOR EZ DEN ETXEAN, SU
MAKURRA GELATZEAN.”

ATSOTZITZA

ANAGRAMAK
MISIO
LIMO
MOKIL
KIRO
OROI
OROI
AITOR
JATOR
TRAJE
JOARE
EROAN
ERASO
OREKA



ANAGRAMAK

ESKER-ESKJIN: 1. ARISIU, GARO, 2. MATO, BETJUN, 3. ALOKARI, 4. GALSORO, 5. GATU, ARRAKASTA, 6. SARI, EGJAZ, SOIL, 7. AURREKO, KASERNA, 8. LAIARI, SALBAIKI, **GOITIK BEHERA**: 1. MAI, SAL, 2. BAL, GAUA, 3. ITOGAGARI, 4. SOKATIRA, 5. ALU, ER, 6. BIS, EKI, 7. GEROGARO, 8. ATURI, 9. RU, OKAKA, 10. ONU, AZAL, 11. SB, 12. ASEA, 13. SORI, 14. TINK, 15. ALAI.

Noemí García

SENDATZEN DUTEN
TATUAJEAK



TERAPIA BIDELAGUN

“Estudioa zabaldu aurretik arazoak dituzten pertsonekin zalditerapia egiten nuen, zalditerapeuta naiz. Bertan eza-gutu nituen genero indarkeria jasan zuten emakume asko. Horregatik, nire bizitzari bira ematea erabaki nuenean, oso argi nituen hiru gauza: zaldiekin lanean jarraitu nahi nuela, tattoo-aren mundua izugarri gustatzen zitzaidala eta bokazio soziala zuen proiektu bati ekiteko gogoz nengoela. Horrela sortu zen Desideratum tatuaje estudioa”.

“Indarkeria matxistaren zantzua ezabatzen dugu tatuajearen bitartez”

Istorio pertsonal gogorren lekuko da Bartzelonako Desideratum tatuaje estudioa. Altruismoa eta enpatia batzen dira bertan, egoera traumatikoak gainditzeko bidean doako tatuajeak eskaintzen dizkiete indarkeria matxista jasan duten emakumeei edota minbizia izan dutenei. Duela hiru urte abiatu zuen proiektua Noemí García (Bartzelona, Herrialde Katalanak, 1977) tatuajeen berebiziko indarraren bitartez oinazearekin amaitzeko.

 LEIRE REGADAS  JORDI BORRÀS

Tatuaje estudioak Desideratum du izena, “oraindik bete ez den desira” esan nahi du. Azala apaintzeaz edo gure bizitzako gertakari garrantzitsuak gogorarazteaz harago, zer funtzio izan dezake tatuaje batek?

Tatuajea oso tresna boteretsua izan daiteke. Gure estudioan gertaera traumatikoak bizi dituzten emakumeak tatuatzen ditugu, hala nola indarkeria matxista jasan dutenak edo bularreko minbizia izan dutenak. Kasu horietan, sendatzeko eta norberarekin adiskidetzeko ahalmena du. Ahalduntze-ekintza bat da, zu zeu zarelako erabakitzen duena zer eraman nahi duzun betirako azalean. Indarkeria jasan duten emakumeen kasuan zauriak ixten laguntzen die, aurrera jarraitu ahal izateko bultzada emanez.

Estudiora hurbiltzeko erabaki hori, gehienetan, azaleko markak estaltzeko edo eraldatzeko beharretik sortzen da, marka horiek jasandako indarkeria

eta erasotzailea uneoro gogora ekartzen dietelako.

Proiektu honetatik abiatuta, indarkeria fisikoaren modu anitzten lekuko izan gara. Oso gauza gogorak dira, pertsona gehienek imajinatu ere egiten ez dituztenak. Aitzoz eta kuterrez egindako izenak, inizialak eta datak ikusi ditugu. Indarkeriaren ondorioz nork bere buruari egindako zaurien orbainak ere bai. Guzti horiek tatuaje pertsonalizatu batean transformatu ditugu, guztiz desberdina den irudi batean.

Kasu honetan tatuajeak etapa berri baten parte dira, bizitza berri baten hasiera. Baina indarkeria matxista adierazteko moduetako bat ere izan daitezke.

Zoritarrez, bai. Izan ere, egiten ditugun tatuaje gehienak beste batzuk estaltzeko dira. Bikotekidearen izena tatuatzeraz behartzea edo hertsatzea ohikoa da, estudioa ireki genuenetik ikusi dugun konstante bat da. Orain itxaron-zerrendan badago neska bat, adibidez, mutil laguna tatuatzailea



"Indarkeria matxistaren biktima izan den emakume bati orbain bat disimulatzen diozunean edo tatuaje bat ezabatzen diozunean, bere borrokan urrats bat gehiago ematen laguntzen ari zara".

zuena. Gorputz osoa bere izenarekin markatu du. Gogoan dut baita ere eskuan zuen izena kentzera etorri zen emakume bat, beste eskuarekin momentu oro ezkutatzeko zuena. Irudi hori desagertzeari nahi dute, behar dute. Neska horri tatuajea egin genion izenaren gainean. Hilabete batzuen bueltan, berriro elkar ikusi genuenean, oraindik ez zen gai beste eskuarekin tatuajea tapatzeari uzteko.

Indarkeria matxista jasan duen emakumearentzat, zenbateko garrantzia du bizitza osorako dirudien zerbait azaletik ezabatu ahal izateak?

Indarkeria matxistaren biktima izan den emakume bati orbain bat disimulatzen diozunean edo tatuaje bat ezabatzen diozunean, nolabait, bere borrokan urrats bat gehiago ematen laguntzen ari zara. Oso une berezia da beraien-tzat. Hainbeste arazo dituzte, pentsatzen dute konponbiderik ez duela; estigma daramate. Tatuajea eskaintzen diezunean aurpegia aldatzen zaie. Tratu txar emailearen izena tatuatuta eramatea suntsitzaileria da psikologikoki. Jada bere

azalean ez dagoela ohartzen direnean sekulako lasaitua hartzen dute. Beste arazo guztiek ere irtenbidea dutela dirudi orduan.

Tatuatzen duenak ere indartsua izan behar du mentalki, egunez egun horrelako kasuei aurre egiteko.

Gogorra da, ez dugu ukatuko. Azkenean, emakume gehienek beren bizi-penak kontatzen dizkizute eta istorio gogorak dira. Badakigu indarkeria matxista existitzen dela, ia egunero ikusten dugu albistegietan, baina inoiz ez duzu imajinatzen horrelako basakeriak gertatzen direnik. Astakeria hain handiak daude... norbaitek feminismoa beharrezkoa ez dela edo indarkeria existitzen ez dela dioenean odola irakiten jartzen zait.

Bularreko minbiziaren ondoren aureola berreraikitzea ere doan eskaintzen duzue.

3D tatuaje hiperrealista egiten dugu, emaitza ikusgarria da. Minbizia izan duten emakumeei buruz esaten ez den

zerbait da langabezia geratzen direla, egoera ekonomiko zailean. Bular-muturra berreraikitzea garestia da estetika zentroetan; 500-1.000 euro artean eskatzen dituzte. Minbiziaren ondoren, emakume batzuk ez daude gustura ispiluan ikusten duten irudiarekin. Badakigu berebiziko garrantzia duela horrek autoestimuan, horregatik aukera hori ere badute hemen.

Zuen estudioa leku segurua da emakumeentzat langile guztiak emakumeak zaretelako. Zure ustez, mistoak ez diren espazio gehiago egon beharko lirateke beste esparru batzuetan ere?

Zalantzarik gabe. Gure estudioko langile guztiak emakumeak gara egiten dugun lan sozialagatik. Ez luke zentzurik izango gizonezko batek tatuatuko balu, ez litza-teke izango ez espazio eroso ez segurua. Hori izan zen talde osoa emakumeek osatzearren arrazoi nagusia. Gainera, bada modu bat emakumeon presentzia aldarrikatzeko ere, eta ikusgarritasuna izateko. Zentzu horretan oraindik egiteko dagoela deritzot. ●



Xvideos.com euskaratzeko sinadurak biltzen hasi dira euskalgintzako bakarjoleak

Disney Plus plataforma euskaratzeko zenbait gurasok abiatu duten bidetik, Xvideos plataforma ere atzerriko hizkuntzetan bakarrik ikus daitekeelako kexu agertu da Kopulazio Autonomoa Normalizatzeko Plataforma Arabar Independentea (KANPAI). Sinadurak biltzen hasi dira Internet bidez, Euskal Herriko instituzioak inplika daitezen, "gutxienez erreferentziatzeko porno webgune bat euskaraz eduk dezagun". Ekimena bultzatu dutenen ustez, "ziminoak bezala lukainka astintzen ari garenean ez dugu zertan gaztelania edo frantsesa entzun, hori ere hizkuntza-politika da". Gaia delikatu da ordea, eta sare sozialetan atxikimendu-kanpaina jotzen hasi direnetik eztabaidak ez du etenik izan. Urtzi Bertakoetxea kazetariak, adibidez, uste du pornoa bikoiztea garestiegia dela eta "Europar egiten den bezala" azp titulatzeari litzatekeela aukerarik onena. Dena den, 48.000 sinadura lortuta, Eusko Jaurlaritzak onartu du gaiak aurrezgian zipriztindu diela eta KANPAIrekin biltzeko prest agertu dira "bi eskuak agerian dituztela agertzen badira". ●



EKIMENARI ATXIKIMENDUA ADIERAZI DIO NAZIOARTEKO HAINBAT ADITUK. HORIETAKO BAT DA TOM HANKS.

SAREAN ARRANTZATUA

Koltxoiak
eta neskak salgai




Produktuak · Ofertak eta lastairak · Lastairak · Umeentzako lastairak eta neskak

Umeentzako lastairak eta neskak

Erosotasuna ez da umeentzako lastairak erabiltzeko garrantzitsu bakarra. (Batzuetan hiruak gertatzen dira). VRSSA umeentzako lastairak aireztatzen orain dute eta saunikorrak dira. Gainera, garbigailu garbi

Bizitza modernoa



Aitona-amonen etorriak kaltetutakoek ahotza altxa dute

Anbulatorioan telefonoa inork ere hartzen ez diela-eta, hots egiten dien edozein pertsonarekin ahalik eta hizketaldi luzeenak mantentzen hasiak dira zientoka aitona-amona. Fenomenoa ez da berria, baina krisi garaietan areagotu egiten da. Anbulatorioko eta tabernetako ateak parez pare itxita, farmazietako solasaldiak ez dira nahikoa haien hitz-jarioari bide emateko, eta telefonoa dute geroz eta gehiago guda-leku. Eta, gerra guztietan bezala, biktimak nonahi. Telefono-kon-

painietako zerbitzu-saltzaileak dira horietako batzuk. "Normalean gu gara hitz egiten dugunok eta bestaldean dagoe-na deia eteten duena, baina, ai mi amol, hauenak ez du amaierarik", dio Ofelia Jennifer Ventura Euskaraleko saltzaile peruar ez prekarizatuak. Desagertua zirudien beste espezie bateko kideak, Jehovaharen Lekukoak, antzeko sintomak ari dira sufritzen eta bi aldiz pentsatzen hasi dira kroketa egin berrien usaina daren etxeko atea jo aurretik. ●

Ilargia eta landareak

Agenda 2021

Jakoba Errekondo

Antton Olariaga

Norberaren egunerokoa
ilargiarekin eta
lurrarekin uztartzeko
erraminta da agenda hau.



14€



7€

Ilargiaren egutegia 2021

Jakoba Errekondok garaiko
uztak eta baratzea, fruitu arbolak
eta basoko lanak. Pello Zabalak
aukeratutako esaerak. Maria Thunen
egutegi biodinamikoarekin osatua.

Etxeko landareak

Jakoba Errekondo

Loreak etxeko poza dira. Ongi
zaintzen dituenak bizitzaren
edertasuna jasotzen du
opari. Liburu honetan
deskubrituko dituzu
bakoitzaren jatorria,
beharrak eta gustuak.

25€



Puska dezagun izotza

SOLASALDI ZIKLOA

Azaroak 30

ARGIA 2020 AMAIERAN

ARGIAko langileak mintzo.

Abenduak 2

BIOANIZTASUNA

Iñaki Sanz-Azkue
Xapoketan karta-jokoaren
egileetakoaren hitzaldia.

Abenduak 4

ILARGIA

Jakoba Errekondo
Ilargia eta Landareak agendaren
egilearen hitzaldia.

Abenduak 7

INOR EZ DA ILEGALA

Bouba Diouf Bilboko kale-saltzaile
senegaldarren Mbolo elkarteko
kideari elkarrizketa.

Abenduak 9

AGROEKOLOGIA

Lurra herriari deika ekimeneko
Miren Saiz, Ane Gorosabel eta
Mikela Untsain mahai-inguruan.

Abenduak 11

LANDAREEN ZAINITZA

Jakoba Errekondo *Etxeko
Landareak* liburua aurkezten.

Abenduak 14

ETXEBIZITZA

Komunitatean bizi liburuan
parte hartu duen Abaraska
proiektuko Ana Almandoz
eta Maite Leturia.

Abenduak 16

EKONOMIA SOZIAL ERALDATZAILEA

Beñat Irasuegi Olatukoopeko
kidearen hitzaldia.

Abenduak 18

INOR EZ DA ILEGALA

Tarana Karim migratu
feministaren hitzaldia.

Solasaldiak
ikus-entzuteko edo
entzuteko:

WWW.ARGIA.EUS

